Destinatiboa, adibideak: *Zapatatxikiintzat*, singularrean (<i>ñoontzat>, mugagabea); eta pluralean: *gauetzkoontzat, eunezkoontzat...*

1.1.1.5.8.2. Hitz-oina ‘-a’ bokalaz amaitzen denean, gehienetan, ‘e’ edo ‘a’ luzea agertzen da.

Soziatiboa, adibideak: *eskupeteekiñ, bee ezpateekiñ, kollareekiñ, odolaaikiñ, alabaikiñ, amaikiñ...* singularrean; eta pluralean: *tenazaikiñ, bi ankaikiñ, seme-alabaikiñ, soñeko puskaikiñ...*

Plurala behintzat, bokal laburrez ere agertzen da: *bee txitakiñ, amairu giltzakiñ...*

1.1.1.5.8.3. Hitz-oina kontsonantez amaitzen denean ere, oro har, bokal luzea agertzen da. Aurreko silaban bokal itxia badago, ‘ee’ agertzen da; bestela ‘aa’:

Soziatiboa, adibideak: *adarmuturreekiñ, bee ezpara (sic) zorrotzaikiñ, bee eaztuneekiñ, bee puñalaikiñ...* singularrean; eta pluralean: *muñeeikiñ, azkazalaikiñ, bi aurreekiñ...*

Destinatiboa, adibideak: *dijoanaantzat, seme zaarrenaantzat...* singularrean.

1.1.1.5.8.4. Eta hitz-oina diptongoz amaitzen denean, bokal luzea zein laburra agertzen da soziatibo singularreko marka. *iitaiiekin, endaiiekin; auakiñ...*

1.1.1.5.9. Inesibo singularreko formak:

1.1.1.5.9.1. Hitz-oina bokalez amaitzen denean: *etxeen, sukaldeen, larreen; kolkoon, odolarrastoon, poltsilloon, leiondoon, soroon; erdiñ, sasiñ, azpiñ, tokiiñ, mendiiñ, sutegiiñ, bekokiñ; zeruun, munduun, buruun, jokuun, neguun...*

1.1.1.5.9.2. Hitz-oina ‘-a’z amaitzen denean: *eraan, arraan, olaan...*

1.1.1.5.9.3. Hitz-oina kontsonantez amaitzen denean, ‘e’ luzea agertzen da: *itzaleen, maaleen, ibaibazterreen...*

1.1.1.5.9.4. Hitz-oina diptongoz amaitzen denean, oro har, bokal laburra dago: *laien, usaien, maien, garaien, zelaien, jaien, oian...*
Inoiz, ordea, bokal luzeaz: *auéen.*

1.1.1.5.10. Instrumentalean, oro har, bokal luzea agertzen da: *jooz; egiiz, Patxiiaz; leunduuz, tragatuuz, suuz...*
Hala ere, bokal laburraz, *<eakutxiz>*.

1.1.1.5.11. Leku-denborazko pluraletan: *besteetan, illuntzeetan, leenaukootan, asmootan, besootan, erriittan, aldiittan* (mugagabeen ‘i’ laburra dago: *<eguzkittan>*); *illeetati, begiittati; etxeetaa, ateetaa, erriittaa; ingumariittako, oriittako, ikazkin-nausiittako...*

1.1.1.5.12. ‘-a’z amaitzen den hitz-oinak adlatiboaren marka hartzen denean: *elizaa* (< *elizara*), *bertaa*, *Alotzaa*, *txabola*, *Jentilbatzaa*, *pesta*, *ermintaa*...

Bokal luzea dugu, bokal arteko dardarkaria erori ondoren, mugagabea eta pluraleran ere: *urtaa*, *lotaa*; *eztaietaa*, *batzuutaa*, *erriittaa*, *etxeetaa*, *odaietta*...

1.1.1.5.13. Deklinabideko kasuei buruz orain arte esandakoa, honelaxe laburbildu dezakegu:

1.1.1.5.13.1. Ataungo hizkeran, hitz-oina -e, -o, -i edo -u bokalez amaitzen den hitzetan behintzat, marka berberaz azaltzen dira absolutibo pluralak, ergatibo singularrak eta ergatibo pluralak. Hau da, mugatzailea asimilatu eta hitz-oinaren amaierako bokala luzatu egiten da: *ardiik*, *errosariook* etab. Hitz-oina kontsonantez nahiz diptongoz amaitzen denean, kasu horiek bokal laburraz (‘a’ edo, -i/-u ondoren a > e bilakatuta, ‘e’) agertzen dira.

1.1.1.5.13.2. Datibo singularrak eta pluralak, hitz-oina -e, -o, -i edo -u bokalez amaitzen denean behintzat, marka berberaz agertzen dira. Hitz-oina bokalez amaitzen denean, dirudienez, singularrean plurallean baino sarriago burutzen da honako bilakaera hau: a + a > ea disimilazioa eta ondoren ea > ee bokal luzamendua⁷.

1.1.1.5.13.3. Hitz-oina -e, -o, -i edo -u bokalez amaitzen denean, genitibo singularra, plurala eta baita inesibo singularra ere, hirurak marka berberaz agertzen dira.

1.1.1.6. V1 V2 > V1 V1 asimilazioaren ondorioz sortutako beste batzuk:

1.1.1.6.1. -ago: *tristeego*, *eosoogo*, *geroogo*, *gutxiigo*, *egokiigo*, *beanduu-go*...

Hitz oina kontsonantez amaitzen denean ere, sarritan bokal luzea agertzen da: *ariñaago*, *okarraago*, *beeraago*, *ederraago*, *geroaago*...

Hala ere, bokal laburraz ere agertzen da inoiz: *geiao*, *leena*, *okarrago*...

1.1.1.6.2. -ere: *iñolaare*, *alaaree*, *zalaare*, *beaare*, *katearee*; *segurooree*, *ezertxooree*, *iooree*, *sartuuree*, *gosalduure*, *ikusiire*, *ariire*, *oniiree*, *Paxiriiree*...

1.1.1.6.3. -ena superlatiboa: *elbarrittuuna*, *aundiña*, *larriñak*, *gazteenak*...

⁷ Nolanahi ere, bokal luzamendu hau gauzatzeko orduan azentuaren eragina kontutan hartzekoa litzateke.

1.1.1.6.4. *Edun aditzaren zenbait adizkietan: *doon, doola, zoon...*

1.1.1.6.5. Pluraleko ondoko adizkiak: *ittuun, zittuun; zittuula, littuuzkeela...*

1.1.1.6.6. Egon aditzaren zenbait adizkitan: *enatxook, daoon, zeoon, daare, zeeren...*

1.1.1.6.7. Joan aditza eta bere adizkietan: *juun, dijoo, dijootz* (eta <*dijoatz*>), *zijoon, zijootzen...*

Baina <*zoatz, goazen*> agertzen dira beti.

Aginteran <*noaan*> agertzen da, bokal luzeaz.

1.1.1.6.8. Subjuntibo eta aginterako honako forma hauetan ere, bokal luzea agertzen da: *Joo zak, botaa zak, botaa zazu, jaa zaun, izaazak* ‘desmóntala’, *laakituuzak, artuu zaun...*

1.1.1.6.9. <*Aak*> ‘haiek’, <*ook*> ‘hauek’ eta beren eratorrietan:

– *aak, aakiñ, aan, aan, aantzako, aatan, aatako...*

– *ook, oola, oolako, oolakookiñ.*

1.1.1.6.10. Beste adibide batzuk: *zuuk* ‘zuek’, *zuutzat* ‘zuretzat’, *zuuntzat* ‘zuentzat’, *een* ‘euren’; *Naparrooko, Muskiiko* (baina <*Muskia*>), *Bitorriko; apuusto* ‘apuesta’, *beela* ‘berehala’, *biitxur* ‘senda’, *beaazu* ‘behar dezu’, *zaandu* ‘zaindu’...

Luzea espero zitekeen lekuan bokal laburra agertzen da inoiz: *die* ‘diete’ (die+e), *zien* ‘zieten’.

1.1.1.7. **Hitanoko alokutiboek sarritan ‘a’ luzea dute:** *diaat, badeaat, zee-tuaat, zeukeaat, bazeekiaat, ziaan, zijoaan, niaan, oaan, dittuaan, zitzaioaan, zeukeaat, neakarreaan, galdu eiottaan* (nik-hari)...

Baina ‘a’ laburraz daudenak ez dira gutxi: *diat, deat, zeuzkeat, nian, oan...*

1.1.1.8. **Hirugarren pertsona pluretalesko ezaugarritzat ‘e’ luzea agertzen da sarri:** *doeen* ‘duten’, *zoeen* ‘zuten’, *zioen* ‘zieten’, *zieela* ‘ziela’, *zaizteet* ‘zaituztet’, *zigueen* ‘ziguten’, *zittueen* ‘zituzten’, *zitzaieen...*

Hala ere, bokal laburraz ere inoiz agertzen da: *zoela* (baina, baita ere, <*zoela*>) ‘zutela’, *doelakoon* ‘dutelakoan’ (eta <*doela*>)...

1.1.1.9. Aditz-izenak (inesiboan batez ere) sarritan bokal luzeaz agertzen dira: *artzeen, zaaltzeen* (baita, <*zaaltzen, zaaltzeko*>), *biltzeen, jartzeen* (baita <*jartzeeko, jartzen*> ere), *saltzeen* (baita ere, <*saltzeeko*>), *zailtzeen*...

Antza denez, gehienbat bi silabako '-tu'dun partizipioa duten aditzak agertzen dira bokal luzeaz; hala ere, hortxe ditugu <*zaaltzeen*> (hiru silabako partizipioa: zabaldu) eta <*jartzeen*> ('-i'z amaitzen den partizipioa: jarri).

Dena den, bokal luzea ez duten aditz-izenak oso ugari dira: *juuten, asten, uzten, jotzen, iltzen, gosetzen, atzeatzen, eskatzen, ordaintzen, ukatzen, aitzen, izutzen, ibiltzen, botatzen*...

1.1.1.10. Azalpen iluneko adibideak:

1.1.1.10.1. Adizki trinkoak, hirugarren pertsona singularrari dagozkion iraganeko formetan: *zeоторren* (baina, baita, <*zeоторren, zetorren; zetozeela, zetoztela*>), *zeekarren* (eta <*zeekarren, eakarrela, neakarreaan*>), *zeekiñ* 'zekien', *bazeekiaat, baleekia* (baina <*likenea*>).

1.1.1.10.2. <-gaarren> atzizkia: *bigaarrena, irugaarrena, laugaarrena, amairugaarreneen*.

Bokal laburraz ere ez dira falta: <*bigaarrena*> eta <*irugarrena*>.

1.1.1.10.3. Hitz elkartu edo eratorri diruditenak: *bittarte* 'bide arte', *irakiñ, egaaka* 'hegaz'.

1.1.1.10.4. Beste aldaera batzuk: *orraatz, uuztai, ardooa*...

1.1.2. -a > -e bilakaera i/u bokalen eraginez

Euskal Herri osoan barrena a > e aldaketa nonnahi gertatzen da aurreko silaban i edo u bokala dugunean. Maiztasun handiena, hala ere, Nafarroa Garaia gehienez, Gipuzkoako hegoaldean eta Bizkaiko eremu gehienez du.

Ataungo hizkeraz, ingurune jakinetan ia sistematikoki betetzen den bilakaera honen eraginez, batez ere mugatzailea itxi da.

1.1.2.1. -i/-u + -a ingurunean a > e bilakatzen da. Adibideak:

1.1.2.1.1. Bokalaren ondoren: *penitentzie, ikasie, guztie, egie, begie, idie, nausie, erie, makie, Kixmie, ipurtaulkie, galazie, garie, mugaarrie, saastie, Saltaarrie, zurie, gorrie, egokie, orrazie, azarie*...

Salbuespen urriak atsoitz batean agertzen dira: *zapia, mugarria, galgarria*⁸...

1.1.2.1.2. Diptongoaren ondoren: *artzaie, deie, anaie, zelaie, gaue, gertaue, sakristaue, ipuie, liñaie, maie*...

Salbuespena: *zartagaia*.

– Oi diptongoaren ondoren a > e bilakaera ez da inoiz burutzen: *oiaari, panparroia, makakorroia, oia, morroiak*...

Hitz-oina ‘-i’ bokalaz amaitzen denean, a > e bilakaera absolutibo singularrean burutzen da. Beste kasuetan, goian esan bezala, mugatzailea asimilatu eta bokal luzea (‘i’ luzea kasu honetan: *biin* etab.) dugu.

Hitz-oina diptongoz amaitzen denean, berriz, a > e bilakaera absolutibo singularraz gainera, beste kasuetan ere burutzen da:

– Absolutibo plurala: *kristauek, beiek, ezkongaiak*...

– Ergatibo singularra: *kristauek, sakristauek, maiek, artzaiek*...

– Ergatibo plurala: *beiek, etsaiak, artzaiek*...

– Datibo singularra: *sakristauei*...

– Datibo plurala: *kristauei*...

– Genitibo singularra: *ibaieen*...

– Genitibo plurala: *kristaueen*...

– Soziatibo singularra: *ittaiekiñ*...

– ...

– Inesibo singularrean: *maien*...

Datu hauen arabera, berriz ere, absolutibo plurala, ergatibo singularra eta ergatibo plurala marka berberaz agertzen dira. Marka berberaz agertzen dira, bestaldetik, datibo singularra eta plurala ere eta, seguruenik, baita gainontzeko kasuen —soziatibo, destinatibo etabarren— singularra eta plurala ere. Eta, azkenik, marka berberaz azaltzen dira genitiboa, singularra nahiz plurala, eta inesibo singularra.

Itxuraz absolutibo singularraren antzekoa izan arren, adlatiboaren ezaugarria ez da inoiz ixten: *maia, erria, lastateia, mendia, Azalaina*...

1.1.2.2. -i/-u + C + -a ingurunean -a > -e bilakatzen da:

1.1.2.2.1. Bokalaren ondoren: *jentille, opille, zaldune, osasune, eaztune, illune, barrune, liraintasune, atxurre, lurre, ezurre, zakurre, motille, ikazkiñe*...

Salbuespenak: *ura* (baina, baita ere, <ure>, edatekoa), *gezurra* (baina, baita, <gezurre>)...

1.1.2.2.2. Diptongoaren ondoren: *jaune, minga(i)ñe, eune, ordaiñe, buruga(i)ñe, erra(i)ñe*...

⁸ <Irumugatako mugarria,
Nere animaen galgarria.
¡Nun sarr, nun sarr!>.

Absolutibotik at, deklinabideko kasu ezberdinetan gertatzen da bilakaera hau:

- Absolutibo plurala: *jentillek, motillek; mu(i)ñek...*
- Ergatibo singularra: *motillek, sorgiñek; errañek, aittejaunek...*
- Ergatibo plurala: *jentillek...*
- Datibo singularra: *jentilleeri; errañeeri...*
- Genitibo singularra: *errañeen...*
- Genitibo plurala: *jentillen...*
- Sozietatibo singularra: *aren iriñeekiñ; baxajaunekiñ...*
- ...

Berrero ere, absolutibo plurala, ergatibo singularra eta plurala marka berberaz agertzen dira.

1.1.2.3. Morfema barruan, oro har, ez da bilakaera hau gertatzen. Hala ere, bada zenbait salbuespen:

1.1.2.3.1. Edukiren adizkiak: *zeuken, zeuzken, daukezu, dauken, dauket, daukean, deaukeala...*

1.1.2.3.2. Izan aditza eta bere adizkiak: *izen* (baina, baita ere, <*izan*>), *di(r)e, zi(r)en, nintzen...*

1.1.2.3.3. -tza pluralgilea: *zeiltzen, zitzela, itzek, etzebiltzen, zitzekan...*
Baina baita ere: *itzazu, ditzaun, zitzala eta diutza* ‘dizkigu’.

1.1.2.3.4. Beste salbuespen batzuk: *apike, aiñe, Aye* (Ataungo auzoa) ...
Hitz-oinaren amaierako ‘-a’ bokalak, gehienetan, ez dira ixten. Adibideak: *sekula, gaztiña, ermintta* (absolutibo singularrean: <*ermi(n)ttea*>), *gauza, puska, pilla, tipula, imajina, kanpaia, txingura, arrautza, billa, milla, izpitta, keiza, pigura, punta, lamiña, sepultura, lukainka...*
Halaber, ‘-a’ bokalaz agertzen dira -e > -a bilakaera izan duten hitzak: *suga, emakuma...* (Absolutibo singularrean: <*sugea*>, <*emakumea*>).

1.1.3. Hiatoen bilakaerak

Bi inguruetan ematen diren aldaketak aztertuko ditugu. Batetik, a + a > ea disimilazioa eta bestetik, *-a + a > a bilakaera. Lehendabizikoa mendebaldeko hizkeretan gertatzen da maizenik eta bigarrena, hegoaldeko euskalkietako ezau-garrizat jotzen da.

1.1.3.1. -a + a > -ea

Bizkaieraren ezaugarritzat eman ohi den a + a > ea disimilazioa, bizkaieratik eta Arabako izkribuetatik at⁹, Burundako euskaran, Goierriko eskualdean eta Legazpi, Brinkola, Itziar, Deba, Mutriku, Mendaro eta Altzola herrietan ere agertzen da. Eta are urrunago ere (Errenderian, e.a.), Mitxelenak azaldutako adibideen arabera¹⁰.

Ataunen ia sistematikoki betetzen da disimilazio bilakaera hau absolutibo singularrean: *galderea, mezea, neskea, saldea, pikea, denborea, gauzea, erminttea, ixkimillea, arrautzea, zapatea, keizea, pestea, oiturea, sokea, zar-itxurea, sortea, eskolea, lamiñea, elizea, narrupillea, idipuskea...*

Leku-denborazkoetan izan ezik, deklinabide singularreko beste kasuetan ere burutzen da disimilazio hau. Adibideak:

- Ergatibo singularrean: *neskeek, lamiñeek, Ama Berjiñek...*
- Datibo singularrean: *arrantzeeri, karrereeri, sobrekameeri, makilleeri...*
- Genitibo singularrean: *neskeen, atakeen, sobrekameen, txageen...* baina, baita ere, <*txaran [puntan]*>, <*animaen [galgarria]*>.
- Soziatibo singularrean: *ezpateekiñ, eskupeteekiñ...*

Pluralean ere aurkitu dugu disimilazioaren aztarnarik: <*aizpeek*>¹¹ (absolutiboan). Absolutibo pluralean, oro har, 'a' luzea agertzen da: *sortaak, animaak...* Partizipioaren adibide bat ere jaso dugu: *botea*¹².

Zenbait hitzetan ez da disimilaziorik: *alaba (alabaak, alabaari, alabaakiñ), arreba* (eta <*amaiarreba*>, <*amaiarrebak*>), *ama (amak, amari, amaakiñ), aitte (aittek)*.

Adlatibo singularrean, bokal arteko dardarkaria galdu ondoren formaz absolutiboaren pareko izan arren, ez da a + a > ea disimilazioa gertatzen: *Erromaa, elizaa, Alotzaa, ermintaa, plazaa, errekaa...*

1.1.3.2. *-a + e > -a

Mendebaldeko hizkeretan agertzen den aldaera, 'a', agertzen da Ataunen ere: *zan, zala, zaneko, dan, dala, e.a.*

Baita zenbatzaile orokorrean ere: *dana* 'todo', *danak* 'todos', *danai, danan, danakiñ...*

1.1.4. Mendebaldeko hizkeren zenbait ezaugarri

1.1.4.1. -e/-a nahasketa. -a + a > -ea disimilazioaren eraginez, aipatu nahasketa (seme + a > semea; andrea < andra + a) gertatzen da batzuetan. Adibideak: *anrra* (eta <*andre doakabea*>), *suga, iraunsuga, bela, besta, leiza* (eta <*leize'aten, leize ortan*>...), *ota, emakuma* (eta <*sugakume'at*>), *lora...*

⁹ Zuazo, 1989.

¹⁰ Zuazo, IKER-5, 118 or., eta Mitxelen, FHV.

¹¹ <iru zaldi oriik nee aitte ta nee bi aizpeek die.>

¹² <Muskii'ko kobagañeko aitzeei kenduta, Sugaarrak botea emen zala esan oi ziueen.>

1.1.4.2. Dardarkari anitzaren aurrean e > a bilakaera. Honen adibiderik Euskal Herri osoan barrena nonnahi aurki dezakegun arren, hitz jakin batzuk (berri, txerri...) bizkaieraz eta Mitxelena Hegoaldeko euskara deitutakoan agertzen dira soil-soilik.

Ataungo hizkeran ere bada bilakaera honen lekukorik: *zuztarra*, *baztar*, *pitxar*, *edarki* (eta <*edarkiña*>), <*inparnu*> (baina, baita ere, <*inpernu*>), *ezkarreko* (baina, baita, <*ezkerreko*>), *igarri* (eta <*igarle*>), *eskarrikasko*, *okarrago* (baina, baita ere, <*okerrago*>), e.a.

Bizkaieraz 'a' bokalaz agertzen diren hitz jakinak, ordea, '-e' dun formaz agertzen dira: *txerri*, *gerri*, *berri*, e.a.

1.1.4.3. Berezko '-a' bokalari, oro har, eutsi. Gipuzkeraren joera bestelakoa den arren¹³, berezko '-a' bokalari, oro har, eutsi egin zaio. Adibideak: *anaie* (*anaieei*, *anaie zaarrena*, *anaie bigarrena*, *anaie-arreba gazte bi...*), *giltza* (*giltza-zuloti*), *burnii* (*burnia*; *burnii tresna*, *burniizko*)...

Bi eratara agertzen den adibiderik ere bada ordea: *gauza*, *gauza guztiik*, *iru gauza*, *gauza orren*, *jan-gauzaik.../gauz onik*, berezko '-a' galduta; *neskatxa/neskatx oni*; *makilla*, *makilla'at*, *makilla orrek*, *makillatxo'at/ makill'*¹⁴, *makillka*¹⁵, berezko '-a' galduta.

1.1.5. Mendebaldeko hizkeretatik saihesten diren zenbait ezaugarri

1.1.5.1. *Edun aditza -E- erroaz agertzen da: *dedana*, *den*, *deu*, *dezu...*
Forma horien aldamenean beste hauek agertzen dira: *do* (< *dau*), *dooia* 'dute', *noon* 'nuen', *zoon*, *zoeen* 'zuten'...

1.1.5.2. Beltz, ezur... Bizkaieraz ezagunak diren 'beltz' (orok. beltz) eta 'azur' (orok. ezur) formatatik saihestuz, Ataungo hizkeran honakoak agertzen dira: *beltz* (*alako buelo beltz aundi'at*); *ezur* (*ezurrek*, *saiets-ezurrek*).

1.1.5.3. i-/u- alternantzia. Bizk. urten, ule, uri, ultze/untze, uger (egin), uzen... orok. irten, ile, (h)iri, iltze, igeri (egin), izen...¹⁶
Ataungo hizkeran i-dun formak agertzen dira soil-soilik: *illeek*, *irten*, *iltzez*, *irari* (*irarika-irarika*), *izen*, *iriñ* (*iriñeekiñ*; bizk. urun), *intxaur...*

¹³ Mitxelena, FHV, 131 or.

¹⁴ <Urduun gue motill oi bee makill, asto ta mai, etxea juun ementzan.>

¹⁵ <Bittaarten otso gizaajoa garojotzalleek ikusi ementzoeen, eta makillka saiets-ezurrek ausi-ta bialdu ementzoeen.>

¹⁶ Zuazo, IKER-5, 136 or.

I-/u- alternantziarekin jarraituz, bizk. zah. *etxi* eta gaur egungo bizkaieraz *itxi* dugu; orok. *utzi*¹⁷. Ataungo hizkeran ere <*utzi*> dugu. Betiere bizkaieratik saihestuz, ondoko forma hauek agertzen dira: *gezur*¹⁸ (*gezurre*, *gezurti*...), *ipur*¹⁹ (*ipurtaulki*, *arbola-ipurdi*), *gutxi*²⁰, *etzan*²¹.

1.1.6. Beste zenbait ezaugarri

1.1.6.1. O > U bilakaera:

1.1.6.1.1. Dardarkari anitzaren aurrean: *urdue*, *urduun* (baina, baita ere, <*orduun*, *orduko*>).

1.1.6.1.2. Sudurkari aurrean: *nun*, *nunbait*, *kuntu*.

1.1.6.1.3. <*muxal*> aldaeran.

1.1.6.2. Asimilazio adibide zenbait: *emen*, *bezela*. *ataa*, *noo* ‘nago’, *Urrutxu* ‘Urretxu’...

1.1.6.3. Ai/ei > i. Adibide batzuetan besterik ez da betetzen: *beziñ* ‘bezain’, *gaziña* ‘gaztaina’, *Beasin* ‘Beasain’, *ziñek* ‘zeinek’ eta *ziñi* (baina, baita ere, <*zeiñ*>), *eskiñi* (baina, baita, <*eskeintzen*>).

1.1.6.4. Ei > ai. Adibide pare batean: *odai*, *eztai*.

1.1.6.5. Diptongo berriak: *aitzeneen*, *laixterrena*.

¹⁷ Orok. ‘*utzi*’; bizk. zah. ‘*etxi*’, gaurrengungo bizk. ‘*itxi*’ (Mixelena, FHV, 100 or.). Landucciren *Dictionarium Linguae Cantabrigoe-n* ‘*echy*’ (baina B-k ‘*uzzi*’), eta ‘*echi*’ (Zuazo, 1989, 12 or.).

¹⁸ Bizk. ‘*guzur*’, ‘*gizur*’ (ms. Oñate)/ orok. ‘*gezur*’ (Mixelena, FHV, 68 or.).

¹⁹ Mendebaldean ere ‘*ipurdi*’ nagun, han-hemen ‘*eperdi*’ agertzen da. Landucciren DLC-k, esaterako, ‘*ypirdia*, ‘*ypirçiria*/ ‘*ypurdia*’, biak, dakartza. Zuazo, 1989, 12 or.

²⁰ Orok. *gutxi*/ bizk. *gitxi*; «Hegoaldeko» euskararen guti, *gutxi*. Mixelena, FHV, 186 or.

²¹ Bizk. *etxun*/ orok. *etzan*, *etzin* (Mixelena, FHV, 192). Halere, ‘*etzan*’ eta ‘*etzin*’ bizkaieran ere ezagunak direla dio Mixelenak berak (Mixelena, FHV, 81).

1.2. Kontsonantismoa

1.2.1. Asimilazio-bustidura²²

Ataunen oso ugaria da asimilazio-bustidura. Gure lan honetan, lehendabizi ‘i’ bokalaren ondorengo bilakabideak aztertuko ditugu eta bigarrenik ‘j’ bokalardiaren ondorengoak.

1.2.1.1. i—V ingurunean:

1.2.1.1.1. Albokoaren bustidura erabatekoa ez bada ere, oso ugaria da. Askotan, forma bera bi eratarata agertzen da. Adibideak: *illoorreen*, *apiilleeri*, *kurteskillareeri*, *illea*, *ixkimillea*, *zillar*, *illargittan*, *opille*, *illabete*, *billera*, *milla*, *amillerazi*, *arille*... *billau*, *billaketa*/ *bilau*; *billa*/ *bila*; *pilla*, *narrupillea*, *urrepilla*, *pillaatuta*/ *pilak*, *garipileen*; *Kanillo*/ *kanilo*; *ixxillik*/ *ixilik*; *illune*, *illuntzealdeen*, *illundu*.../ *ilune*, *iluntze*; *illunaarreen*/ *ilunaarreen*; *jentilleeri*.../ *jentileeri*; *makilla*.../ *makila*; *ibilli*/ *ibili*; e.a.

Bustidurarik gabeko formak ez dira ezezagunak ordea: *zintzilika*, *erreberentzileku*.

Morfema muga ez da oztopo bustidura betetzeko: *ibill-i* (baita <*ibili*> ere); *amill-erazi*...

Halaber, hitz berean palatal gehiago egoteak edota erdal mailegu izateak ez du bustidura eragozten: *ixxillik* (baita <*ixilik*>), *illargittan*, *jentillek* (gazt. *jentil*), *apilleeri*...

1.2.1.1.2. Sudurkariaren bustidura ia erabatekoa da: *diñat*, *iñolaare*, *osiñeko*, *ariñaago*, *lurriñik*, *ikazkiñeeree*, *Amaberjiñea*, *jakiñeen*, *iriñeekiñ*, *liñaie*, *giñela*, *erregiña*, *giñen*, *irakiñaziñ*, *sorgiñe*, *larriñak*, *berdiñe*, *la miña*...

Salbuespena: *sinistu*.

Albokoaren kasuan bezala, morfema mugan (e > i bilakaera gertatu ondoren ere: *larriñak*, *aundiña*, *edarkiiña*...) eta erdal maileguetan ere (*siñuka*, *gaziña*, *imajiña*, *botiñe*, *tiña*, *erregiña*, *tximiñiti*...) bustidura gertatzen da. Era berean hitz berean beste palatal bat egoteak ez du bustidura eragozten: *iriñeekiñ*, *tximiñiti*, *irakiñaziñ*...

1.2.1.1.3. Hortzetako herskari ahoskabea, ‘t’, ugari bustitzen den arren, bustidura ez da erabatekoa. Maiz bustita nahiz busti gabe agertzen da. Adibideak: *ittai* ‘*igitai*’, *itto*, *politte*... *dittut* (*dittuk*, *dittuzu*, *zittuun*, *zittuzten*...)/ *ditut* (*ditun*, *zituun*); *ekitten*/ *ekiten*; *itturriondo*/ *iturria*; *abiittu*/ *abiitu* ‘*abiatu*’; *txikittu* (*geldittu*, *arkittu*, *gorittuta*, *gaizkittu*...)/ *txikitu* (*zatitu*, *elbarrituuna* ‘*elbarrituena*’, *guritutako*...); *tokittan* (*illargittan*, *tokittan*, *mendi*...

²² Puntu honetaz ikus Oñederra, 1990, 154-162 orr.

ttan...)/ tokitan; erritti/ erriti; erriitaa/ erriitaa; jositta, izpitta, ausitta, ikusitta eantsitta... /jarrita, itxita, iitzita...

Beste zenbait adibide bustidurarik gabe agertzen dira: *erritarrak, tximinii' ti, iitarri...*

Morfema mugetan (*Larrunarri' tti, illargi-ttan, gaizki-ttu...*) eta, inoiz, baita hitz mugetan ere betetzen da bustidura: *eldu puntati'tta* 'puntati(k) eta', *leenau garbi tta apaindue* 'lehenago garbi eta apaindua', *uuztai-kateek ausi tta moztuik* 'uztai-kateak hautsi eta mozturik'.

Eta, azkenik, beste palatal bat egoteak ez du bustidura eragozten: *iturrittan, illargittan, iturritti...*

1.2.1.1.4. Txistukari apikariaren lekuan, oro har, sabaiaurrekoa agertzen da: *bixigu, ixillik*²³ eta *ixillik, ixuri, ixurtzea, txixe, ixil, abixau*.

Salbuespenak: *isatseti, isil*.

1.2.1.1.5. Txistukari bizkarkaria bustidura markarik gabe agertzen da beti: *izututa, elizea, izen, bizi, gizaajoa...*

1.2.1.1.6. Afrikatuetan, jatorrizko hobietako apikaria bustita agertzen da: *iitxi, itxi, iritxi, itxasoa, itxututa, itxumustu*.

Salbuespen bakarra morfema mугan gertatzen da: *errukitsue*.

1.2.1.1.7. Hobietako bizkarkaria, berriz, beti busti gabe azaltzen da: *itzul, itzontzi, zitzaion, diitzenat, itzik...*

1.2.1.1.8. $i\{l,n\}$ —V ingurunean, laterala bustita (*billur(re)*) zein busti gabe agertzen da (*bildur, bildurtu...*).

1.2.1.1.9. i —V ingurunean, 't' aldaera bustia zein busti gabea agertzen da: *erminta, erminta*; eta baita \langle ermitta \rangle ere.

1.2.1.2. i —{C, #} ingurunean:

1.2.1.2.1. Albokoaren bustidura hautazkoa dela dirudi, forma asko bi erataratu agertzen baitira. Adibideak: *uranbill, makill, makillka... jentill bat, jentill oriik.../ ill'il, iltzeko, ilko; jentil bat, jentilgazteat, jentil danak...; motill ori, motill batek, motill jokalarie/ motil ori, motilkoxkorra, motil erdi-*

²³ Oñederrak dionez J.M. Barandiaranek grafia bikoitza (-xx) erabiltzen du kontsonante luzeagoa markatzeko. Oñederra, 1990, 155 orrialdeko oharra.

eroa; opill bat, opill ue/opil bat, opil orren; jenbillbaatzen/ jentilbaatzen; amillka/amilka...

Busti gabe agertzen diren formak ez dira falta: *biltzea, apiiltxo, ilda, iltzez, etzebiltzen...*

1.2.1.2.2. Sudurkariaren bustidura ere hautazkoa da. Forma asko bi erataraz azaltzen dira, esaterako, genitiboa *-(are)n*, soziatiboa *(-kin)* eta inesiboan *-(a)n* agertzen diren formak. Adibideak:

– Genitiboan: *ezkonberriñ [oian]/ezkonberriin [apusuntuko]; biiñ/ biin [ar-teen]* etab.

– Soziatiboan: *onekiñ/onekin; suukiñ/suukin; tenazaakiñ/tenazaakin; alabaakiñ/ seme-alabaakin* etab.

– Inesiboan: *sasiñ/sasiin; gerriñ/gerriin; mendiñ/mendiin; azpiñ/azpiin;* etab.

Bustiduraz nahiz busti gabe agertzen dira beste hitz hauek ere: *egiñ/egin; ekiñ/ekin; eziñ/ezin; beziñ/»ezin; aaziñ/ aazin e.a.*

Hitz barruko sudurkariak, berriz, bustidurarik gabe azaltzen dira beti: *ginduuna, astindu, txingura, aazingo, Beasingo, zikindu...*

1.2.1.2.3. Hortzetako herskari ahoskabetuen artean bildu dugun adibide bakarra, bi erataraz azaltzen da: *ditt, dit.*

1.2.1.2.4. Hitz amaieran, ez da txistukari apikaria azaltzen. Kontsonante aurrean apikaria nahiz sabaiaurrekoa dago. Batzuetan bi eratakoak agertzen dira. Adibideak: *pixka'at, pixkaka, abixtu, irrixt, irrixtau, iixteko... ixkimillea/ iskimilla; Kixmie/Kismik.*

Beti busti gabe agertzen diren formak ere badira: *kristau, triste, distiatzen, txistu, sinistu, illargi-islaraa...*

1.2.1.2.5. Txistukari bizkarkaria, oro har, bustidurarik gabe agertzen den arren, dirudenez, *<pixtiin>* hitzean bustita dago.

1.2.1.2.6. Ingurune honetan ez da hobietako apikaria agertzen.

1.2.1.2.7. Hobietako bizkarkaria ez da bustitzen: *urritz, itz, pitz.*

1.2.1.3. j—V ingurunean:

1.2.1.3.1. Albokoaren bustidura ia erabatekoa da. Hala ere, batzuetan forma bera bi erataraz agertzen da. Adibideak: *ollaarrak, sailleti, garijotzalleek, ollo, deilla... zeillen, zeillela/zeilen, zeilela; maillu/mailu.*

Adibide horiek erakusten dutenez, bustidura eragin ondoren, sarri desagertzen da bokalerdia.

1.2.1.3.2. Sudurkariaren bustidura erabatekoa da. Askotan, bustidura eragiten duen bokalerdia desagertu egiten da. Adibideak: *baño, soñeko, oñetako, oñek, oñazez, eiñe, egundaño, Akelarreraño, deiñala, ordaiñe, mingañe, aiñe, eiñik, beiñee, natxeillek, muñekiñ, errañe...*

1.2.1.3.3. Hortzetako herskari ahoskabea bustiduraz zein bustidurarik gabe agertzen da. Sarritan forma bera bi eratara dago. Adibideak: *otseite* 'hots egite', *eseitta, gaittuk, bazaittu, oiturea, gosaittea... eitle/eite, eiteko; baita/ta*»aita; *aittu/aitu; atte, attejaunek/aitte-erregeen; paitte-baztarreen/paittegañeen; deittu/deitu; goitti/goiti...*

Beti bustidura gabe agertzen denik ere bada: *seitu*.

1.2.1.3.4. Jaso dugun adibide bakarraren aldaeretan, txistukari apikaria beti bustita agertzen da: *gaixoon, gizaaxoa, gaixotu*.

1.2.1.3.5. Txistukari bizkarkaria beti, berriz, bustidura gabe agertzen da: *aize, aizen gertaizo...*

1.2.1.3.6. Afrikatuei dagokienez, ez da hobietako apikariaren adibiderik azaltzen.

1.2.1.3.7. Hobietako bizkarkaria, bustidurarik gabe azaltzen da: *ekaitze, aitze, ogeitzen...*

1.2.1.4. j— ingurunean:

1.2.1.4.1. Bildu ditugun adibideetan, ez da albokoaren bustidurarik agertzen: *zeiltzen, sail, zail...*

1.2.1.4.2. Sudurkariaren bustidura ugari agertzeaz gainera, sarri bustidura eragiten duen bokalerdia galdu egiten da. Batzuetan, forma bera bi eratara azaltzen da. Adibideak: *etzeiñ, itxoiñ, aiñ, oañ* (baina, baita ere, *oaiñ/oain*); *eiñ/ein; bikaiñ/bikain; beiñ/bein; aldeñ/aldein; otseiñ/otsein; zeñ/zein; mingaiñ/gain...*

Horien aldamenean, ordea, *ordain, soin...* bustidurarik gabe daude.

Hitz barruan, berriz, bustidura ez da inoiz betetzen: *ordaintzen, gaindi, aindu, einkizun, Zaindi-ondo, beinkau...*

1.2.1.4.3. Ingurune honetan hautazkoa da hortzetako herskari ahoskabearen bustidura: *nunbaitt/nunbait; zerbaitt/zerbait; noaizbait; goaittgarrin*.

1.2.1.4.4. Txistukari apikariaren orde, beti sabaiaurrekoa agertzen da. Bokalerdia, batzuetan, galdu egiten da. Adibideak: *aixkie* ‘adiskide’, *oixpoaana* ‘obispoagana’, *laxter*, *laixter*...

1.2.1.4.5. Txistukari bizkarkaria busti gabe agertzen da.

1.2.1.4.6. Afrikatudun adibide bi jaso ditugu eta berauetan bizkarkaria bere horretan mantentzen da: *gaitz*, *aitz*.

Orain arte aztertutakoari bustidura adierazkorrak gehitu behar zaizkio. Ataungo hizkeran, izan ere, maiz agertzen dira honelako bikoteak: *zakurre/txakurre*; *zuri/txuri*; *zintzo/txintxo*; *zaar/xaar*; *politte/pollit*; *gozoa/goxoa*. Halaber, beste hauek ere bustidura adierazkorren adibide dira: *koxxorra*, *mordoxkea*, *motxa*.

1.2.2. Ahostunen ondoko afrikatuen aldeko neutralizazioak indar handia du ataungo hizkeran

Erdal mailegu berrietan neutralizazioa ia erabatekoa da: *penitentzie*, *Lorentzotaa*, *komenentzie*, *errebentzileku*, *pentsau* (baina, baita, *pensau*), *martxoa*, *poltsa*...

Badira salbuespenak ordea: *zinzil* (baina *zintzilika*), *polsilloon*, *libersio*.

Kanpo-sandhietan ere indar handia dauka afrikatuen aldeko neutralizazioak.

1.2.2.1. Sudurkariaren ondoren:

1.2.2.1.1. ‘Emen + aditza’ loturetan, gehienetan afrikatua agertzen da: *ementzan*, *ementzoeen* (behin *emenzoeen*), *ementzittun*, *ementzittuen*, *ementzieen*, *ementziotzan*, *ementzioeen*, *ementzeaman*, *ementzeuzken*, *ementzi-jootzan*; *ementzeоторren*, *ementzeerean*; *ementzekieen*...

Nor-nori motakoak, oro har, frikariaz azaltzen dira: *emenzitzaion* (behin *ementzitzaieen*), *emenzitziotzan*, *emenzitzaieen* (bi aldiz *ementzitzaieen*)...

1.2.2.1.2. Sudurkariekin jarraituz, ‘Partizipio + laguntzailea’ loturetan ere, gehienetan afrikatua agertzen da: *juuntzan*, *eiñtzittula*, *izentzala*, *aldeintzoon*, *zeiñtzan*, *jakintzoeneen*, *eotentzana*, *eintzook*...

1.2.2.1.3. ‘Aditz-izena + laguntzailea’ ingurunetan, gehienetan, frikariari eutsi egin zaio. Adibideak: *ataatzen zana*, *buruatzan zayo*, *iotzen zaneen*, *eitten zoeen*, *juun zaneen*, *ein zion*, *ekartzen zoonai*...

Batzuetan, ordea, afrikatua agertzen da: *juutentzaio*, *eittentzoon*, *eustentzioela*, *eotentzana*...

1.2.2.1.4. Beste adibide batzuetan, afrikatua agertzen da: *antzeolakoon* ‘han zegoelakoan’ (baina, baita ere, *an zerela*) eta *eintzak* (baina, baita, *aldein zan, lagun zaidazu*), aginterako forman.

1.2.2.1.5. Subjuntiboan, berriz, frikariari eutsi egin zaio: *aldein zezala, ein zezan, geatu aazin zezan* ‘geratu arazi zezan’.

1.2.2.2. Albokoaren ondoren: Bi loturetan aurkitu dugu afrikatuaren aldeko neutralizazioa:

1.2.2.2.1. ‘Al + adizkia’: *altzea, altzeon, altzittuun, altzittueen, altzeekiñ...*

1.2.2.2.2. ‘Il + laguntzailea’: *iltzan, iltzaneen, iltzoon...*

Baina subjuntiboari lotuta agertzen denean, frikaria agertzen da beti: *il zezala, il zitzala, il zeiozkala...*

1.2.2.2.3. Beste adibide bat: *daabiltzu*.

1.2.2.3. Dardarkariaren ondoren: Gehienetan, frikariari eutsi egiten zaio. Hala ere, forma batzuk bi eratarata agertzen dira: *beartzan/»ear zan, beartzoela/»earzoela, beartzoon/ bear zoon, zertzan/zer zan...*

Horien aldamenean, beste adibide hauek ere jaso ditugu: *arzak, sar zak...* eta, txistukari afrikatuaz, *jartzak*.

1.2.3. ‘Ez’ partikularen eta aditz laguntzailearen arteko sandhietan gertatzen diren neutralizazioak

1.2.3.1. Txistukaria + txistukaria > afrikatua: *etzoon* ‘ez zuen’, *etzan* ‘ez zen’, *etzala, etzeukeaat, etzeion* ‘ez zegoen’, *etzion, etzekiñea, etzebillen...*

Salbuespenik baden arren (<*ez zitzala*>, hain zuzen ere), bilakaera honek subjuntiboan ere badauka indarra: *etzezan, etzezala...*

1.2.3.2. Txistukaria + herskari ahostuna > herskaria ahoskabetua.

‘Ez + adizkia’ ingurunean, salbuespenak salbuespen (<*eztezu*>, <*eztauket*>), Ataunen ez da bilakaera hau burutzen: *ez diñat, ez den, ez diñ, ez diitzenat, ez deat, ez dauket, ez dizueet, ez deu...*

‘Ez + ba + laguntzailea’ ingurunean, aldiz, ahoskabetze bilakaera ia erabatekoa da. Adibideak: *baezpazan, ezpazion, ezpazoeen, ezpadian, ezpanaun, ezpadezu...* Salbuespena: *beiz geldi eote ez bazan itxasoa botako zoola*.

1.2.3.3. Txistukaria + sudurkaria > txistukaria galdu: Gehien-gehienetan, txistukariari eutsi egin bazaio ere (ikus < *ez naiz*>, < *ez naun*>, < *ez nok*>, < *ez neike*>), batzuetan txistukaria galdu egiten da: *enatxook, enaiz*.

1.2.3.4. ‘Txistukaria + albokoa’. Ingurune honetan, jaso dugun adibide barrean, ez da aldaketarik gertatzen: *ez likek*.

1.2.4. Hasierako txetxekari afrikatua

Gipuzkeraz, bizkaieraz eta Nafarroa Garaiaiko zenbait hizkeratan bezala, hasierakoan txetxekari afrikatua [] agertzen da Ataunen ere. Adibideak: *txixe, txingurri, txerri, txekorgorri* (baina, baita ere, < *zekor*>).

Goian aipatu dugunez, bustidura adierazkorak ere agertzen dira, esaterako: < *zakur*>en aldamenean < *txakur txiki*’at>.

1.2.5. Antzinako *j- eta frikari belare ahoskabea

Gipuzkeraz, Nafarroan gipuzkeraz egiten den lurraldea barne (Burunda), eta Gipuzkoa ondoko bizkaieraz eta goi-nafarreraz²⁴ bezala, Ataungo hizkeran ere antzinako *j-ren lekuan frikari belare ahoskabea, [x] dago: *juun, jetxi, jarri, jaune, jaio...*

1.2.6. Hitz hasierako herskari ahoskabea

Ataunen hitz hasieran maiz agertzen da herskari ahoskabea: *pago, pekatu, keiza, kuutzea, kurteskillareeri* (baina *gurdi*), *poltsa, koltoon, komenentzie, konpesoreek, poltsilloon, trapu...*

Salbuespenak: *barkamen, gaziña*.

1.2.7. Bokal arteko frikariantzeko ahostunen eta dardarkarien galera

Bokal arteko frikariantzeko ahostunen eta dardarkarien galera maiz gertatzen da:

²⁴ Bizkaieraz egiten den Gipuzkoako lurraldean, Markinan, Gernikako zenbait ingurutan eta Ondarroan. Goi-nafarreraz, Araizko eta Garesko hizkeretan eta Hondarribian, Irunen eta Oiartzunen.

1.2.7.1. Frikariantzeko ezpainkari ahostunaren galera. Adibideak: *ira-(b)azten, esku(b)iko, za(b)aldu, iluna(b)arreen, ementze(b)illen* (baina baita *ze-billen... ere*), *jentil gazte(b)at, beingo'aten...*

Kontsonante honen galera, jakina, ez da erabatekoa: *erabat, urgabe, txabolara, eundabealdiko, erabai...*

1.2.7.2. Frikariantzeko horzkari ahostunaren galera. Adibideak: *ba(d)ik, ba(d)a, a(d)ixkie, e(d)o, etze(d)iñ, e(d)atea, oge(d)itzen, i(d)an, di(d)aak, esai(d)azu, dauke(d)an...*

Galera, ordea, ez da erabatekoa: *adarmuturreekin, eder, bideen, edadeen, ba-dijoo...*

1.2.7.3. Frikariantzeko ahostun belarearen galera. Adibideak: *dia(g)u, etze(g)ion, e(g)uzkie, da(g)o, e(g)osten, e(g)une, i(g)o, la(g)un* (eta *lagunek*), *ba(g)e, leena(g)o, e(g)unsendiñ, na(g)usie, Sami(g)el, de(g)un, zaldune(g)ana, de(g)iuela, i(g)urtzi, ne(g)arrez...*

Berriz ere, galera ez erabatekoa: *agertu, Agaotz, ago...*

1.2.7.4. Dardarkari bakunaren galera. Adibideak: *ge(r)atu, e(r)eitten, bu(r)uko* (baita *burue ere*), *e(r)akutxi, ese(r)i, ero(r)i, zi(r)en, u(r)e, denbo(r)an, kate(r)ik, e(r)antzun, i(r)etzat, egu(r)aldi, a(r)aziñ, maki(r)ik, gu(r)utze...*

Adlatiboaren dardarkari bakuna, oro har, galdu egiten da: *etxe(r)a* (baina baita *etxera ere*), *alde(r)a, zeru(r)ako, Muru(a)ko...*

Galera ez da erabatekoa ordea: *inguruti, Muruako, eraiñ, eroi, mendira* (adlatiboa)...

1.2.7.5. Dardarkari anitzaren galera.

Dardarkari anitzaren galera ere gertatzen da hitz batzuetan: *etoi, ekai, beiz* (baita *berriz ere*), *aatsaldeen*.

1.2.8. D > r bilakaera

Inoiz $d > r$ bilakaera gertatzen da: *eraari* 'edari', *zaare* 'zaude', *zeeren* 'zeuden', *bazereek* 'badaude, toka', *islaraa, patxara...*

Ultrazuzenketak ere aurkitu ditugu: *beida* 'begira', *beidau* 'begiratu', *adagi* 'haragi', *aideen* 'airean'.

1.2.9. 'P' formak

Gipuzkeraz gainera, goi-nafarrera eta bizkaierari dagozkien gipuzkeraren inguruko eremuetan 'p' formadunak agertzen omen dira; lurralde horretatik at ere, maileguetan —eta batez ere hitz hasieran— 'p' aurki omen daiteke 'f' ren orde²⁵.

²⁵ Mitxelena, FHV, 263-264 or.

Ataungo hizkeran maiz azaltzen dira 'p'dun formak: *pigura, konprome, inparnu, pestea, aparie, alporja, paltaz, konpesoreek, Naparrooti, panparroia, alperrik...*

1.2.10. *Bage/gabe*

Ataunen mendebaleko hizkeretako 'ba(g)e'²⁶ agertzen da gehienbat. Adibideak:

- *Ni ez naiz zu bae juungo, Jaune.*
- *T' alakoateen arrizabal aundi' aten ondoon odol-arrastoik bae geatu ementzien.*
- *Urduun eizt<riik galdetu ementzion ze ea mingaiñ baeko buruik izete altzan.*
- *eta neskea batee ille bae geldittu ementzan.*
- *Baño aitte, gaitzeen indarrez, itzbae geldittu eta beelaxe ill ementzan, beste garbitasunik eman bae.*
- ...

'Ba(g)ez' ere agertzen da inoiz:

- *Baño motillek, uste baez, odol tanto' at birdigoi ontziñ sartu bae utzi.*

Baita 'gabe' ere agertzen da. Adibideak:

- *baña erabat izututa, urgabe biurtu ementzan bee txabolara.*
- *Lotsagabe jaiio intzen.*
- *Urduun azari lotsagabea otsoon gañeen zankaletra jarri ementzan*
- *Or goien zeok artaldel batee txakurrikan gabe.*
- *errege orri naigabe' atek ema ementzion.*
- *Beorri gabe ez neike juun.*

1.2.11. '*Guzti' eta 'guzi'*

Ataungo hizkeran biak agertzen badira ere, mendebaldeko hizkeretan²⁷ azaltzen den 'guzti' erabiltzen da gehienetan.

Ei-ren arabera, aldiz, 'guzi' agertzen da Ataunen²⁸.

1.2.12. *Andra, andre/anrra, anrre*

<Andra>, <andrea> formen aldamenean bizkaieraz ezagunak diren <anrra>, <anrreek> agertzen dira Ataungo hizkeran. Altsasuko euskaraz A. K. Izagirrek²⁹ <iru anra> eta <anri ta gizona> 'el marido y la mujer' jaso zituen.

²⁶ Bizkaieraz gainera, K. Zuazok aztertutako Arabako testuetan 'bage' aldaera erabiltzen dute Landucci, Gamiz eta Betolaçak. Portalek, berriz, erdialdeko euskalkietan garatu den 'gabe'. (Zuazo, 1989, 20 or.).

²⁷ Bizkaieraz 'guzti' eta 'duzti' azaltzen dira.

²⁸ 'Guzti' dago Legazpi, Zumarraga, Beasain, Lazkao eta Abaltzisketan; 'guzi', aldiz, Legazpi, Itsaso, Ezkio, Itsasondo, Lazkao, Ataun eta Abalzisketan. Echaide Itarte, iker-3, 1984.

²⁹ Izagirre, 1967, 50 orr.

1.2.13. *-*ani > -ai; *-uni > -ui*

Bizkaieratik saihestuz, Gipuzkoako, Nafarroa Garaiko eta antzinako Arabakoan bezala, Ataungo hizkeran **-ani > ai* eta **-uni > ui* bilakaerak aurkitu ditugu. Adibideak: *zai* (baina *zaanduko*), *artzai*, *mandazai*; *ipui*.

Hala ere, beti *oa(i)ñ*, *oaintxe* agertzen da.

1.2.14. *Txistukarien bi sailak*

Ataunen ondo bereizten dira txistularien bi sailak: *zail/sail*; *zu/su* etab.

Instrumentalean ‘-z’ agertzen da: *iltzez*, *galalez* etab. Etxarrin, berriz, ‘-s’ dago.

1.2.15. *Larru/narru*

Mendebaldeko hizkeretan bezala³⁰, Ataunen ‘narru’ forma agertzen zaigu: *narru arteen*, *narrupillea*, *narrugorriñ*, *idinarru*; *narrutu*.

1.2.16. *Mendebaldeko hizkerekiko aldeak*

Zenbait aldaerak Ataungo hizkera mendebaldekoetatik aldentzen dute. Besteak beste, honako hauek: *belarra* (mendebaldean bedar, berar), *illargi* (mend. irargi), *zillar* (mend. zirar, zidar)...

1.2.17. *Bilakabide aipagarri zenbait*

1.2.17.1. *b > g*: *ogeitzen*; *zugie*, *zugipeen*.

1.2.17.2. *sapai*; orok. *sabai*.

1.2.17.3. *irarika* (orok. *igeri*, *igari*); *txaga*, *txara*.

1.2.17.4. *txorkoon* ‘corcho’.

1.2.17.5. *h > g* bilakaera: *iges*, *legortzeko*; *legoi*.

1.2.17.6. *E(r)e* agertzen da gehienetan. Behin, ordea, ‘be(re)’ azaltzen da: *baitta be aren gañeen esei ee*.

³⁰ ‘Hegoaldeko’ euskaraz eta bizk. *narru/orok. larru*. Ikus Mitxelena, FHV, 324 or.

2. MORFOLOGIA

2.1. Izenaren morfologia

2.1.1. Erakusleak

Hauexek dira jaso ditugun erakusleak:

2.1.1.1. Lehen gradukoak

| | <i>Singularra</i> | <i>Plurala</i> |
|-----------|-------------------|----------------|
| Abs. | <i>au</i> | <i>ook</i> |
| Erg. | <i>onek</i> | |
| Dat. | <i>oni</i> | |
| Gen. | <i>onen</i> | |
| Soziat. | <i>onekiñ</i> | |
| Ines. | <i>ontan</i> | |
| Adl. des. | <i>ontaako</i> | |
| Abl. | <i>onokontati</i> | |

Sarritan, erakuslea, izenaren ezkerrean eta eskuinean, bietan agertzen da: *onokontati*, *onoko intxaurrale au*, *ooloko errittan*.

‘Beau’³¹ erakusle indartua ez da ezezaguna Ataunen.

2.1.1.2. Bigarren gradukoak

| | <i>Singularra</i> | <i>Plurala</i> |
|------|-------------------|----------------|
| Abs. | <i>oi, ori</i> | <i>ori(i)k</i> |
| Erg. | <i>orrek</i> | <i>oriik</i> |

³¹ <-Arri au zetaakoo zuia?>

<-Sakaarritaako.>

<-Beaure ez dek txarra peloteen eraan botatzeko.>

| | | |
|------------|------------------------|------------------|
| Dat. | <i>orri</i> | |
| Gen. | <i>orren</i> | |
| Soziat. | <i>orrekiñ</i> | <i>oriikiñ</i> |
| Instr. | (neska) <i>orrezaz</i> | <i>oriezaz</i> |
| Ines. | <i>ortan</i> | |
| Adl. | <i>ortaa/orreana</i> | |
| Adl. dest. | <i>orta(a)ko</i> | <i>oriittako</i> |
| abl. | <i>ortati</i> | |

Sarritan, erakuslea, izenaren ezkerrean eta eskuinean, bietan agertzen da: *orroko zizallu ortan, orroko zakur oi.*

<Beorren> indartua ere aurkitu dugu: *Obea dek, orroko zakur oi il-da beorren begiik eta biotza erregeeri eamatea.*

2.1.1.3. Hirugarren gradukoak

| | <u>Singularra</u> | <u>Plurala</u> |
|------------|------------------------------------|--------------------|
| Abs. | <i>ure, ue, uexe</i> | <i>aak(aatxek)</i> |
| Erg. | <i>ark, arek, aek, (artxek)</i> | |
| Dat. | <i>ari</i> | |
| Gen. | <i>aren (arentxen), aen, arren</i> | <i>aan</i> |
| Soz. | <i>arekiñ</i> | <i>aakiñ</i> |
| Destin. | | <i>aantzako</i> |
| Ines. | <i>artan</i> | <i>ataan</i> |
| Adl. | <i>artaa</i> | |
| abl. | <i>artati</i> | |
| Adl. dest. | <i>artaako</i> | <i>aatako</i> |

2.1.1.4. 'Bera' erakusle indartua

| | <u>Singularra</u> | <u>Plurala</u> |
|---------|--------------------------|-----------------|
| Abs. | <i>bea</i> | |
| Erg. | <i>beak; berberak</i> | |
| Dat. | <i>berari, beai</i> | |
| Gen. | <i>bere, beel beaan</i> | <i>been</i> |
| Soz. | <i>bea(a)kiñ, beekin</i> | |
| Destin. | <i>beetzat</i> | |
| Adl. | <i>bereana</i> | <i>beengana</i> |
| Abl. | <i>beaandi</i> | |

Sarritan, erakuslea, izenaren ezkerrean eta eskuinean, bietan agertzen da: *aako zakur amorratu ari, ako ate txuri artan, ako ate gorri aatan.*

<Beure> erakusle indartua ere ezaguna da: *Labeti opillek ataa zittueneen, danetan opillik ederrena neskato arek eindakoa gertau ementzan. Ta beure, igurdiiñ jateko, eaman aaziñ ementzoon etxeakoandreek seme zaarrenaantzat.*

Ikusi dugunez, hirugarren graduko erakuslea <ure, ue> dugu testu hauetan, bizkaieratik³² saihestuz (bizk. ‘a’). Beste aldetik, bizkaieraz pluraletako ‘oneek’, ‘orreek’ ‘arek’ ez dira Ataunen agertzen.

2.1.2. Izenordainak

Honako hauek jaso ditugu:

2.1.2.1. Lehen pertsona

| | <i>Singularra</i> | <i>Plurala</i> |
|-------|------------------------------------|------------------|
| Abs. | <i>ni</i> | <i>gu</i> |
| Erg. | <i>nik</i> | <i>guk</i> |
| Dat. | <i>nei</i> | <i>guri</i> |
| Gen. | <i>nere, nee</i> | <i>gure, gue</i> |
| Soz. | <i>neekiñ</i> | |
| Dest. | <i>neretzat, neetzat, neetzako</i> | |
| Abl. | <i>nigandi</i> | |

2.1.2.2. Bigarren pertsona

| | <i>Singularra</i> | <i>Plurala</i> |
|-------|------------------------|-----------------|
| Abs. | <i>i</i> | |
| Erg. | <i>ik</i> | |
| Dat. | <i>iri</i> | |
| Gen. | <i>ire, ie</i> | |
| Dest. | <i>iretzat, ietzat</i> | |
| Abs. | <i>zu</i> | |
| Erg. | <i>zuk</i> | <i>zuuk</i> |
| Dat. | <i>zuri, zui</i> | |
| Gen. | <i>zure, zue</i> | <i>zuun</i> |
| Dest. | <i>zuutzat</i> | <i>zuuntzat</i> |

2.1.3. Izenordain indartuak

Aurkitu ditugun formak:

³² Bizk. ‘a’/orok. ‘(h)ura’.

2.1.3.1. Lehen pertsona

| | <u>Singularra</u> | <u>Plurala</u> |
|------|---------------------|----------------|
| Erg. | <i>neonek, neuk</i> | |
| Dat. | <i>neuri</i> | |
| Gen. | — | <i>geon</i> |

2.1.3.2. Bigarren pertsona

| | <u>Singularra</u> | <u>Plurala</u> |
|----------|--------------------|----------------|
| Abs. | <i>eorri</i> | |
| Erg. | <i>eorrek</i> | |
| gen. sg. | <i>zee ‘zeure’</i> | |

2.1.3.3. Hirugarren pertsona

| | <u>Singularra</u> | <u>Plurala</u> |
|-----------------|-------------------|------------------|
| Erg. | | <i>eak</i> |
| Gen. | | <i>eren, een</i> |
| Gen. leku-denb. | | <i>eetako</i> |

2.1.4. Nor/zeiñ izenordain galdetzaileak

Izenordain galdetzaileen alorrean, NOR bi aldiz agertzen da soil-soilik:

– *¿ba aldakik nork iltzoon nee anaie?*

– *nor da?*

Oro har, ZEIN izenordainak jan dio bere lekua:

– *ziñek ein dik?*

– *Bakarrik erregeen alabaari azaldu nai ziokeela zeiñtzan, baño ez ementzoon ezautu zeiñ zan.*

– *Ea zein zan galdetu ementzion San Pedrok.*

etab.

2.1.5. Izenordain galdetzailea + -bait

Izenordainekin jarraituz, ‘izenordain galdetzailea + -bait egiturak agertzen dira Ataunen: *nunbait, zerbait, noaizbait*.

Horien aldamenean *batebat, bateebatek* aurkitu ditugu.

2.1.6. Hitz eratorriak³³

Erator-atzizkidunen sailkapena egiterakoan, izen sortzaileak, izenondo sortzaileak, aditzak sortzekoak eta aditzondo sortzaileak bereiztu ditugu.

2.1.6.1. Izen sortzaileak:

2.1.6.1.1. Izen abstraktuen sortzaileak: **-tasun**, **-dade** eta **-keri(a)** aurkitu ditugu.

-TASUN:

Izenondoari nahiz izenari eransten zaio.

Izena + -tasun: *launtasune*, *aixkietasun*.

Izenondua + -tasun:

Aldaerak:

- a) -tasun: *liraintasun*, *abeastasun*. Sudurkariaren ondoren herskari ahoskabea dago bi adibide hauetan, joera orokor denari jarraituz.
- b) -dasun: *ondasun*. Silaba bakarreko 'on' izenlagunak '-tasun' atzizkia jasotzean herskari ahoskabea ahostun bihurtzen da.
- c) -asun: *Osasune*. Hauxe litzateke aldaerarik zaharrena.

Aldaketa morfofonetikoak:

- a) Esan bezala, silaba bakarreko 'on' izenlagunak '-tasun' atzizkia hartzen duenean, herskari ahoskabea ahostundu egiten da: *ondasun*. Gainontzeko adibideetan, hitz-oinak silaba bi edo gehiago dituela, herskari ahoskabeari eusten zaio: *liraintasun*, *abeastasun*.
- b) Herskari aurreko txistukari afrikatua frikari egiten da: *aberastasun*.

-DADE:

Adibidea: *Kristiandadea*.

Lat. -tate > gaztelaniaz -dad. Euskaraz, berriz, -tate (jakitate, ekialdean), -date (borondate) eta Ataungo testu hauetan aurkitu dugun -dade, gaztelaniaatik mailegatua.

-KERIA:

Izenondoari erantsita aurkitu dugu: *Gaiztakeri*.

Aldaketa morfofonetikoa:

Koldo Mitxelena erakutsi bezala, bi silabako hitzetan -o > -a aldaketa gertatzen da: gaizto → gaiztakeria.

2.1.6.1.2. 'Egile'-izenen sortzaileak: **-ari**, **-kin**, **-gile**, **-le**, **-tzaile**.

-ARI:

a) Izena oinarri:

- joko + -lari: *jokalari*. Goian aipatu dugun aldaketa fonetikoa, -o > -a, gauzatzen da hemen ere.
- a + -ari: *pelotari*. Bokal luzea laburtu ondoren.

³³ Atala honi buruzko xehetasunetan murgildu nahi duenak jo beza Elixabete Perez Gaztelu, 1995, 983-1064 orr.

- a(i) + -ari: *iittari*.
- Kontsonantea (eiz(a)) + tari: *eiztari*.

b) Kokapen jakinik gabe gelditzen dira: *ostalari* eta *ermentari*.

-GIN:

Txistukariaren ondoren, ahoskabetze bilakabidez, herskari ahostuna ahoskabe egiten da: *ikazkiñ*.

-GILE:

Adibidea: *Ongille*.

-LE:

Adibideak: *Ardazle* eta, aditzoinari erantsita, *eskale* eta *igarle*.

-TZAILE:

Aditzoinari erantsita agertzen da: *launtzalle*, *kontuartzalle*, *mugaarrialdatzalle*, *garijasotzalle*, *garojasotzaille*.

- LE ‘eskatu’ eta ‘igarri’ aditzei lotuta agertzen da; -TZAILE, berriz, ‘lagundu’ri eta AS[IS + A³⁴]AS-ri lotuta azaltzen da: <*kontuartzaille*> etab.

2.1.6.1.3. ‘Multzoa’ adierako izen-sortzaileak: **-di**, **-tegi**.

-DI:

Txistukariaren ondorengo herskari ahostuna, ahoskabetze bilakabidea dela medio, ahoskabetu egiten da: *saasti*.

-TEGI:

Lantegi, *sutegi*, *lastategi*; eta bokal arteko frikariantzeko ahostuna galdu ondoren, <*lastatei*> ere.

Beste aldetik, sudurkariaren ondorengo herskari ahoskabea ahostun egiten da: *ardandegi*, *presondegi*.

2.1.6.1.4. ‘Tresna’-edo ‘baliabide’-izenen sortzaileak.

Atzizki bakarra aurkitu dugu: **-garri**, eta bera aditzoinari lotuta agertzen da.

-GARRI:

Izenondoak ere sortzen ditu. Aurkitu ditugun izenak hauexek izan dira: <*galgarri*>, <*bizigarri*>, bigarrena bokal luzeaz.

2.1.6.1.5. ‘Objektua/produktua’ adierako izenen sortzaileak: **-ko**, **-kari**.

-KO:

Izen bizigabea ‘gorputz-atala’ + -ko → Izen bizigabea ‘jazkia’: *oñetako*, *soñeko*.

-KARI/-ARI:

Bokal luzeak dituzten <*bazkaari*>, <*gosaari*> eta <*eraari*>rekin batera <*apari*> ere, bokal laburraz, agertzen da.

2.1.6.1.6. ‘Gauzakia/ekoizpena’ adierako izen sortzailea: **-kizun**.

-KIZUN:

Adibideak: *eginkizun*, *gertakizun*, bietan aditzoinari erantsita agertzen da.

³⁴ Egitura hau osatuz agertzen diren aditzak, ‘artu’, ‘aldatu’ eta ‘jaso’ dira.

2.1.6.1.7. Aditzoinari erantsiz, ‘ekintza/ondorioa’ adierako izenen sortzaila: **-era, -izo, -men/-pen, -zio, -keta, -dura.**

-ERA:

Adibideak: *Entzuerrea, gertaera, galdeera, akabarea* eta, -k- epentetikoaz, *izakera*.

-IZO:

Adibidea: *gertaizo*.

-MEN/-PEN:

– -men: *barkamen, goamenak*.

– -pen: *etsipen, aurreapen*.

<*Gogamen*>-en erator-oinarria izena da, ez aditzoina. <*Baimena*>ren erator-oinarria, berriz, ‘bai’ aditzondo da.

-ZIO:

Adibidea: *asolbizio*.

-KETA:

Aditzoina + atzizkia: *jorraketa, banaketa, billaketa, lapurreta*.

Izena + atzizkia: *izketa*.

Aldaketa morfofonetikoa:

Hitz amaierako afrikatua frikari bihurtzen da atzizkia eransten zaionean: *izketa*.

-DURA:

bok. + -tura: *oiturea*.

2.1.6.2. Izenondo sortzailak:

2.1.6.2.1. Jatorrizkoa: **-tar.**

-(T)AR:

Adibidea: *erritarrak*.

2.1.6.2.2. ‘Joera-zaletasuna’ adieraziz: **-kor.**

-KOR:

Adibidea: *illezkorra*.

2.1.6.2.3. ‘Gaitasuna’ adierakoa: **-garri.**

1) -GARRI:

Aditzoinari eransten zaio: *arrigarri, errukarri, goaittgarri, bizigaarri, ikaragarri, ikusgarri*.

Aldaketa morfofonetikoak:

a) ‘Herskari + herskari’ gisakoen artean bi jarrera ezberdin nabaritzen dira:

1) -k + g- > -k-: *errukarri*, eta

2) -t + g- > -g-: *goaittgarri*³⁵.

³⁵ Jose Ignazio Gerriko segurarrak bere ‘Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera’ liburuan bi aldaera erabiltzen ditu, <goaicarri> eta <goaitcarri>, biak herskari ahoskabeaz. Ataungo hizkeran, gure ustez, herskari ahoskabedun aldaera (h.d., ‘goaikarri’) erabiltzen da nagusiki.

- b) 'Txistukari + herskari' gisako lekuko bakarrean, herskari ahostuna dago:
ikusgarri.

2.1.6.2.4. 'Jabegoa' adierakoak: -dun, -ti, -tsu/-(t)zu.

-DUN:

Adibidea: *zaldun*.

-TI:

Adibidea: *gezurti*.

-TSU/-(T)ZU:

Izenari erantsita agertzen da: *zorritzu, indartsu, errukitsu, mukizu*.

2.1.6.3. Aditzak sortzeko atzizkiak: -tu.

2.1.6.3.1. Oinarriaren kategoria:

2.1.6.3.1.1. [Iz./ izond.] + TU.

– izenari erantsita: *errukitu, bildurtu, pillaatu, simaurtu, atxurtu, deitu, sutu, narrutu, nekau, lapurtu, jokau, kontau, saltau* (baina, baita ere, <*saltatu*>), *ikaatu, trabau, gosetu, ingurau, orraztu...*

– izenondoari erantsita: *gaixotu, abeastu, makurtu, garbittu, gorittu, gaizkittu, larritu, zimurtu, txikitu, librau, zorau, luzau, itxutu, berotu, zatartu, elbarritu, izutu, argitu, askau...*

2.1.6.3.1.2. [IS. + -ra/-gana] + TU.

Adibideak: *atzeatu, buruatu, mendeatu, alderatu, lurreratu, lurperatu*.
Eta <*eskuutaatuko*>.

2.1.6.3.1.3. [IS + -z] + TU:

Instrumental marka gabea: <*izenta(a)tu*>. Ikusten denez, sudurkariaren ondoren herskari ahostuna (<*izendatze*>) nahiz ahoskabea agertzen da.

2.1.6.3.1.4. [+ zenbatzailea] + TU:

Adibideak: *erdibittu, erdibanaatu*.

2.1.6.3.1.5. Osorik mailegatutako aditzak:

– bokalen aldakuntzaz egokitua: *beinkau*.

– atzizkiaren eransketa soilez: *tragatu, pentsau, tokau, txupau, eskapatu, markau, pasau*.

Hots-aldaketak:

a) -e → -a: *nekau, librau, luzau*.

b) -o → -a: *zorau, jokau, saltau, batizau*.

c) -u → -a: *ingurau, kontau*.

d) a + a > aa: *pillaatu, eraatu*.

e) bokal luzeak ez dira laburtzen: *pillaatu, eskuutaatuko...*

Alderantziz, batzuetan laburra espero genezakeen lekuan luzea dugu: *erdibanaatu, izentaatu* (baita ere, <*izentatu*>)..

2.1.6.3.1.6. Albokariaren eta sudurkariaren eskuinean, ‘-tu’k aldaera ahostuna hartzen du: *tximeldu, zikindu, laundu*.

2.1.6.4. Aditzondo sortzaileak: -ka, -to/-do, -ki, -ro.

-KA:

-[+izena]: *arnaska, saltoka, deadarka, makillka, malluka, muturka, usanka, atzamarka, oska, siñuka, arrika, egaaka, erreguka*.

-[+izenondoa] + KA: *zorritzuka, errenka, pixkaka, laxterka*.

-[+aditzoina] + KA: *izutuka, ikuska, galdezka, joka, amilka, uxarka*.

-TO/-DO:

Adibideak: <*Obeto*> eta, sudurkariaren ondoren herskari ahostunaz, <*ondo*>.

-KI:

Ondo eta obeto izan ezik, gainontzeko aditzondoak osatzeko -ki erabiltzen da: *gaizki, edarki, aski*.

Sudurkariaren ondoren ‘-gi’ (<*ongi*>, beharbada fosilizatuta dagoen forma) eta -ki (<*galanki*>) agertzen dira.

-RO:

Adibidea: *berriro*.

2.1.6.5. Atzizki txikigileak: -txo, -txa.

-TXO:

Adibideak: *artzaitxo, gaztetxoa, seme-alabatxo, errekatxo, makillatxo, neskato apaintxoa, poltxatso, semetxo, umetxo, ogi puskatxo’at, apiiltxo, erditxo*.

-TXA:

Adibidea: *neskatxa*.

2.1.6.6. Eratorpenaren ingurukoak.

2.1.6.6.1. Zenbatzaileak.

-NA:

Adibidea: *bana*.

-GARREN:

Adibideak: *biga(a)rrena, iruga(a)rena, laugarrena, amairugarren*.

Oro har, <a> bokala luzatu egiten da.

2.1.6.6.2. Atzizki gisakoak.

-T(Z)EKO:

Adibidea: *arritzekoa*.

2.1.6.6.3. Aditz erazleak.

-Aditzoina + arazi/erazi motakoak: *erretiaaziteko, joaaziñ, geatu aaziñ, erre aaziñ, pasaazi, eaman aaziñ, atazitten, irakiñaziñ, artuerazin, eiñ aaziñ, errabiaziñik, adiaaziñ, asarraziñ, amillerazi, aldeeraziñ.*

-RA-:

Adibideak: *e(r)aman, erabai, eraiñ, eantzun, eakutxi...*

2.1.7. Hitz elkartuak³⁶

Jaso ditugunak bi atal nagusitan sailkatu ditugu: 'Izen elkartuak' eta 'Sail bereziak' deitu taldeetan.

2.1.7.1. Izen elkartuak.

2.1.7.1.1. Izen elkartu kopulatibo arruntak.

2.1.7.1.1.1. Dvandak.

Indiar gramatikariak 'Dvanda' (bi eta bi) deitu zituzten hitz elkartuok maila berean dauden kategoria gramatikal bereko bi osagaiz eratuak dira. Hitz elkartuok osagaien kategoria gramatikala izango dute.

Izen arrunt elkartuak:

2.1.7.1.1.1.1. Bi izen arrunt bizidunez osatuak: *senar-emazteak, anaie-arrebak, seme-alabatxo aak, neskame-morroiak...*

2.1.7.1.1.1.2. Bi izen arrunt bizigabez osatuak: *esku-musuak.*

2.1.7.1.1.2. Hitz elkartu kopulatibo atributiboak. *gizon ongille, etxe-koandra sorgiñek, Kanillo arrantzalea, amaiarreba sorgiñ ue, kristau ermentarie, sorgiñ lapurre, ostalari lapurre, ollaar.*

Aldaketa morfofonetikoa:

-o > -a: <*ollaar*>. Bokal luzea bere horretan mantentzen da.

2.1.7.1.1.3. Aposizioak:

2.1.7.1.1.3.1. Izen arrunta [+gizakia]: *Patxi-ermentarie, kristau ermenterie, ama Birjiñea, Aitte Santue, San Miel aingerue.*

2.1.7.1.1.3.2. Izen bizigabea adierazten dutenak: *Alar-mendi, Muu-mendi, Iparraarremendi.*

2.1.7.1.1.3.3. Jaun edo andre osagaia daramaten izen elkartuak: *An-dra Geaxi, attejaune, amandre.*

³⁶ Atal honi buruzko xehetasun gehiago nahi duenak jo beza Miren AZKARATE VILLAR, 1990.

2.1.7.1.1.3.4. Seme, anai(e) osagaia daramatenak: *seme Kanillo-txiki, aren anaye legoiak*.

2.1.7.1.1.4. ‘Subsumtive’ motakoak:

2.1.7.1.1.4.1. Bi osagaiak bizidunak direlarik, izen biziduna adierazten dute: *sugakume, emakume*.

2.1.7.1.1.4.2. Izen bizigabeak adierazten dituztenak, osagaiak ere bizigabeak izanik: *errabaldie, Aldatsa izenekoa, Dantzaleku izenekoa, birdigoi ontzie*.

2.1.7.1.2. Menpekotasunezko izen elkartu arruntak.

2.1.7.1.2.1. Mugakizuntzat izena duten menpekotasunezko izen arruntak:

2.1.7.1.2.1.1. Sujetu - Objetu mota.

2.1.7.1.2.1.1.1. Ergatiboak-absolutua -zertu ‘Egilea’:

-izen biziduna + izen bizigabea: *sorgin-billera, ollarkantue*.

-izen bizigabea + izen bizigabea: *eaztun-otsa, odolarrasto, adarrotsa, ate otsa, intxaur-itzaleen*.

-osagai atzizkiduna + izen bizigabea: *izketa-otsa, zaunka-otsa*.

2.1.7.1.2.1.1.2. Ergatiboak-absolutua -zertu ‘Edukia’:

-izen biziduna + izen bizigabea: *artalde, jende sail, ardazle sail, lapur sail, lagunsail...*

-izen biziduna + izen biziduna: *neskame-jendeek*.

-izen bizigabea + izen bizigabea: *narrupillea, gari pillak, egur sorta*.

Aldaketa morfofonetikoak:

a) -i > q: *ard(i)

*ard(i)-talde > *artalde*.

b) sudurkariaren eta dardarkariaren ondoren, txistukaria ez da afrikatzen: *lagunsail, lapur sail*.

2.1.7.1.2.1.1.3. Ergatiboak-absolutua -zertu ‘Iturburua’:

-izen bizigabea + izen bizigabea: *bide-kuutze, ate zulo, intxauritzal*.

2.1.7.1.2.1.1.4. Ergatiboak-absolutua -zertu ‘Zatia’:

-izen biziduna + izen bizigabea: *idinarru, ardinarru, gizaburu*.

-izen bizigabea + izen bizigabea: *paitte-baztarreen, gaztiña-ipurdi, arbolaipurdi, sukalde-baztarrea, ibaibaztarreen, itxasbaztarrea, odoltanto, kirtenaldeerdi, mai aldeerdi, illuntzealdeen, euzkialeerdi, aatsaldeerdi, artontor, mendi tontor, kama-adar, urritz-adar, gatz ale, intxaurrale, ur ale, saiets-ezurrek, galale, galazi, ota zuztar, adarmutur, leiza ataka, kueba ataka, ibai ertz, betazal, kurteskillare, jai illuntze...*

Aldaketa morfofonetikoak:

a) gizon > giza: *gizaburu*.

- b) -i > ø a) *arr(i)
*arr(i)+ tontor > *artontor*.
- b) *beg(i)
*beg(i)+ azal > *betazal*.
- c) *gurd(i)
*gurd(i)+ eskillare > *kurteskillare*.
- c) -r- > -l: *gar(i)+ ale > *galale*.
*gar(i)+ azi > *galazi*.

2.1.7.1.2.1.2. Sujetu - Adizlagun mota.

2.1.7.1.2.1.2.1. Erg./abs. -leku kasua - zertu 'Helburua':
-izen bizigabea + izen bizigabea: *kezulo*.

2.1.7.1.2.1.2.2. Erg./abs. -leku kasua - zertu 'Edukia':
-izen biziduna + izen bizigabea: *jentilbaatza*.
-izen bizigabea + izen bizigabea: *gari soro eta galsoro*.

Aldaketa morfofonologikoa:

a) -r- > -l: *gar(i)-soro > *galsoro*.

Kasu honetan, albokoaren ondorengo txistukaria ez da afrikatu.

2.1.7.1.2.1.3. Objetu - Sujetu mota.

2.1.7.1.2.1.3.1. Ergatiboak -absolutua - zertu 'Edukia':
-izen bizigabea + izen bizigabea: *gatzure*.

2.1.7.1.2.1.3.2. Ergatiboak -absolutua - zertu 'Ariketa':
-izen bizigabea + izen bizigabea: *saltaarrie*.

Aldaketa morfofonetikoa:

-o > -a: <*saltaarrie*>. Bokal luzea ez da laburtzen.

2.1.7.1.2.1.4. 'Objetu - Adizlagun' mota:

2.1.7.1.2.1.4.1. Erg.- abs. - leku kasua - zertu 'Helburua':
-izen bizigabea + izen bizigabea: *giltza zulo, dantzaleku, ipurtaulki, jaieun, jokuetxe, errebentzileku*.

2.1.7.1.2.1.4.2. Erg. - abs. - -z (zertaz) - zertu 'Helburua':
-izen bizigabea + izen bizigabea: *sepultura-arri*.

Aldaketa morfofonetikoa:

-i > ø; *ipurd(i)

*ipurd(i)-aulki > *ipurtaulki*.

2.1.7.1.2.1.5. 'Adizlagun - Sujetu' mota:

2.1.7.1.2.1.5.1. Erg./abs. -lekua kasua - zertu 'Lekua':
-izen biziduna + izen biziduna: *itelbi*.
-izen bizigabea + izen biziduna: *eskolume*.
-izen bizigabea + izen bizigabea: *atalarri*.

Aldaketa morfofonetikoak:

a) -i > ø: *id(i)

*id(i)-elbi > *itelbi*.

b) -r- > -l : *atal-arri > *atalarri*.

c) -a > ø: *eskol-ume > *eskolume*.

2.1.7.1.2.1.5.2. Erg. -abs. -zerekin - zertu -'en gainean, -i buruz':
jan gauzak.

2.1.7.1.2.1.6. 'Adizlagun - Objetu' mota:

2.1.7.1.2.1.6.1. Erg.-abs.- leku kasua -zertu 'Zatia':
-izen biziduna + izen bizigabea: *idipuska, giza-puska*.
-izen bizigabea + izen bizigabea: *adagi puska, talo puska, ogi puska, gorputz-zati, lukainka mutur, sobrekamapuska, ille-izpi...*
-mugatzaile eratorria: *gosaari-mokau, soñeko puska*.

Aldaketa morfofonetikoak:

gizon > giza: *giza-puska*.

2.1.7.1.2.1.6.2. Erg. abs.- leku kasua -zertu 'Lekua':

-izen bizigabea -izen bizigabea: *muga(a)rrria*.

Aldaketa morfofonetikoak:

a) -a + a > aa luzea: *mugaarri*.

Baina inoiz, aa > a, <*mugarri*>, 'a' laburraz.

2.1.7.1.2.1.6.3. Erg.-abs.- -z (zertaz) -zertu 'Gaia':

-izen bizigabea + izen bizigabea: *birdigoi ontzi, zillar-ari*.

2.1.7.1.2.1.6.4. Erg.-abs. -z (zertaz) -zertu 'Edukia':

-izen bizigabea + izen bizigabea: *txistu pilla, urrepilla, arripilla, gari pilla, narru pilla, egursorta, zimaur pilla*.

2.1.7.1.2.1.6.5. Erg.-abs.--z (zeri buruz) -zertu 'Helburua':

-izen bizigabea + izen bizigabea: *logure, txixe gure, ur eske, ostatu eske*.

2.1.7.1.2.1.7. Adizlagun - Atributu mota:

Erg./abs.- Atributua -leku kasua-zertu Edukia

-izen biziduna + izen bizigabea: *neskameleku, abere-etxe*.

2.1.7.1.2.1.8. Aditz - Adizlagun mota:

2.1.7.1.2.1.8.1. (Erg./abs.)-leku kasua -zertu Helburua:

-aditzoina - izen bizigabea: *bizimodu, bizileku, bizitokie, etzan-leku*.

2.1.7.1.2.1.8.2. (Erg./abs.)-leku kasua -zertu Edukia:

-aditzoina + izen bizigabea: *jaiotetxe*.

Aldaketa morfofonetikoa:

-o + e-: -t- kontsonante epentetikoa txertatu: *jaiotetxe*.

2.1.7.1.2.2. Mugakizuntzat izenkia duten menpekotasunezko izen elkartuak:

2.1.7.1.2.2.1. Objetu-aditz- sujetu mota:

-izen bizigabea + izenkia (egile atzizkiaz sortuak): *garijotzalle, ga-rojasotzalle*.

2.1.7.1.2.2.2. Objetu-aditz mota

-izen bizigabea + izenkia: *arto eitte, gari eitte, ganbelajotze, keiza-jate, ardo-eate, gatz saltze, arbi eitte, aur eitte, otseitte*.

2.1.7.1.2.2.3. Sujetu-aditz mota.

-izen bizigabea + izenkia: *orri irtete, orri erorte*.

2.1.7.1.3. Izen elkartu bereziak:

2.1.7.1.3.1. izen berezia + izen arrunt bizigabea: *Bikarioetxe* (etxe-izena).

2.1.7.1.3.2. izen berezia + izenondoa: *Kanillo-txiki*.
Kategoria gramatikal hauen elkarketaz zenbait etxe-izen sortzen dira: *Peruneberri...*

2.1.7.1.3.3. izen arrunt bizigabea + izenondoa: *Zapatai-txiki*.
Kategoria gramatikal hauen elkarketaz etxe-izen ugari sortzen dira: *Etxeberri, Dendaberri, Etxezuri*.

2.1.7.2. Sail bereziak.

2.1.7.2.1. Metaforak.

Bakarra aurkitu dugu: <itzontzi>, eta berau [+biziduna] tasuna duen izen elkartu metaforikoa da.

2.1.7.2.2. Baso- mugatzailea duten izen elkartuak:

-‘Adizlagun - Sujetu’ ‘Erg./abs.-leku kasua-zertu’ ‘Lekua’: *baxajaun, baseerri*.

Aldaketa morfofonetikoak:

a) -o > -a: *baxajaun*.

b) -o > -e: *baseerri*.

2.1.7.2.3. ‘Koxkor’ mugakizuna duen izen elkartua: *mutilkoxkor*.

2.1.7.2.4. ‘-ko’ atzikia duten osagaiez eratuak:

2.1.7.2.4.1. ‘-ko’ bigarren osagai dutenak: *Jaungoiko, Lauztiazpiko, Telazpiko, Artilaazpiko edo Arratibelazpiko...*

Lehena izan ezik, besteak etxe- edo toki-izenak dira.

2.1.7.2.4.2. ‘-ko’ lehen osagaian daramana: *etxeoandra*.

2.1.7.2.5. Hitz elkartu exozentrikoak:

Posesiboak:

-izenondoa[izena + izenondoa]izenondoa: *begibakar, aurpegi illun*.

2.1.7.2.6. Bi osagai baino gehiagoko hitz elkartuak:

2.1.7.2.6.1. Osagaietako bat ‘Eratorketa eta Hitz Elkarketaren Artekoak’ deitu klasekoa denean. *sukalde-baztarrea*: Suj-Obj Erg-abs-zertu ‘Zatia’. *Kanilo arrantzalea*: Aposizioa.

2.1.7.2.6.2. osagaietako bat ‘-en’ edo ‘-ko’ atzizkia daramana: *etxe-koandra sorgiñe*: Atributua.

2.1.7.2.6.3. ‘Esaldi hitz’ deituak: *ayuma otsak*: Suj-Obj Erg-abs- zertu ‘Egilea’.

2.1.7.2.6.4. Beste hitz elkartu batzuk: *mugaarrialdatzallea*: obj-aditz-suj. *mugarri*: alg-obj erg-abs-leku kasua-zertu lekua.

Aldaketa morfofonetikoak:

-a + a > -aa: *mugaarrialdatzallea*.

2.1.8. Eratorketa eta hitz elkarketaren artekoak

‘Alde’, ‘aldi’, ‘bide’, ‘gai’, ‘zai(ñ)’, ‘zale’... bigarren osagaitzat dituzten egiturak aztertuko ditugu.

ALDE:

a) Izena + alde: *arratsalde, Lazkau alde, leize alde, goiz alde, Muru alde, Alar alde, ermintaa-aldea, zerualde, Umarki-alde, gauerdi-alde...*

b) ko + alde: *Lauztiazpiko alde*.

ALDI:

izena + aldi: *lanaldi*.

BIDE:

izena + bide: *Artiñea bidea, lanbide, eskubide, elizaabide, gizabide, eskola-bide*.

GAI:

Izen bizidunak osatzeko erabiltzen du: *andragai, ezkongai*.

ZAI(N):

Adibideak: *artzai, mandazai*.

ZALE:

Adibideak: *arrantzale, urrezale*.

2.1.9. Beste egitura batzuk

2.1.9.1. Aditzondo elkartuen ingurukoak. Aipagarrienak, beharbada, ‘bila’, ‘esker’, ‘zai’ bigarren osagaitzat duten egiturak dira: *egur billa, ur eske, estatu eske, saasti zai*.

2.1.9.2. ‘Erdi’ mugakizun duten izen elkartuak. Mugatzailea beti izen arrunta izan ohi da: *gau-erdi, aatsaldeerdi, goiz erdi*.

2.1.9.3. ‘Itxura’ bigarren osagaitzat duten egiturak.

2.1.9.3.1. Alde batetik, mugatzailetzat izenondoa duten egiturak ditugu: *zaar itxurea*.

2.1.9.3.2. Eta bestetik, mugatzailetzat izena duten egiturak: *katu-itxuran*. <Gizon-piguran> ere hemen sar daitekeela dirudi.

2.1.9.4. ‘Aurre’, ‘atze’, ‘barru’, ‘ondo’... bigarren osagaitzat duten egiturak:

AURRE: *ate-aurre, ataka-aurre, etxe aurre...*

ATZE: *sasi atzeen*.

BARRU: *leize-barru, koba-barru, kaja-barru*.

ONDO: *beeko erreka ondo, Zaindi-ondo, etxeondo, ate ondo, pago-ondo, leiondo, iturriondo, aitz ondo, gosaalondo, apalondo, sutondo, bazkaalondo*.

GAIÑ: *mendigaiñe, paitte-gaiñe, mingaiñe, urritzgaiñe, buru-gaiñe, leize-gaiñe, pagogaiñe, asto-gaiñe, leize-ataka-gaiñe, kobagaiñe, intxaur-gaiñe, piku-gaiñe, zaldi gaiñe, txingura gaiñe*.

PE: *zugipe, sasipeik sasipe*.

INGURU: *etxeinguru, goizalde inguru, gauerd-inguru, Urkuela-inguru, Erremedio-inguru, leize inguru...*

ALDE: *Aye'alde, Elkorri'alde, gauerd-alde, Umarki-alde, zeralde, sukalde, ermintaa-aldea, Sempere aldea, Lazkau alde, Iturriotz alde, Alar alde, goizaldea...*

Aldaketa morfofonetikoak:

a) -r- > -l: *gosaalondo, apalondo, bazkaalondo*.

b) -u + o-: -t- kontsonante epentetikoa txertatu: *sutondo*.

c) -u + a-: -k- kontsonante epentetikoa txertatu: *sukalde*.

2.1.9.5. Neurri sintagmak: *baso ardoa, pertz-esnea, zagiardoa, katillu saldea, zaku-urrea...*

2.1.9.6. Bikoizpenak: *poliki-poliki, aldiñ-aldiñ, txintxo-txintxo, txiki-txiki, tximeltximel, gauero gauero, eunero-eunero, pixkaka-pixkaka, etxeik etxe, erdiz erdi, mendiz mendi, bizi-biziik, eskuz esku, sasiz sasi, sasipeik sasipe, irarika-irarika, zuri-zuri...*

2.1.10. -e, -o -u eta -i bokalez amaitutako hitzen deklinabidea

Deklinazioan, mugatzailea asimilatu ondoren, -e, -o, -u eta -i bokalez amaitutako hitzetan bokal luzeak ditugu. Salbuespena absolutibo singularrean dugu.

ABSOLUTIBOA

– Singularra: *usoa, neskamea, bekokie, artzaie...*

– Plurala: *illeek, umeek; gurasook, auzook; iru zaldiik, nagiik; eskuuk, di-ruuk; iru anaieek...*

ERGATIBOA

- Singularra: *eskaleek, jiganteek; neskatook, usook; jokalariik, itelbiik; bixiguuk; neskamemorroiak, artzaiek...*
- Plurala: *garijasotzalleek, senar-emazteek; Agerrekook; ardiik, inguamariitako erriik; batzuuk; morroiak, etsaiek, artzaiek...*

DATIBO

- Singularra: *jokalariiri, buruuri, zagi-ardoori, beste anaieeri, aitteeri...*
Kontsonantez edo diptongoz amaitutako zenbait hitzek ere ‘a’ luzea agertzen du inoiz: *gizonaari, zaarrenaari; egoiaai...*
- Plurala: *aurrekooi, zazpi buruuri; anaiei, bee morroiari.*
Berriz ere kontsonantez amaitutako zenbait hitz bokal luzez agertzen da. Adibidez: *bi umeen gorputzei.*

GENITIBO

- Singularra: *sorgiñ gaizton [ipuie], bee etxeoandreen, bixiguun, bekokiñ [erdia], azariñ [isatsa]; oiaan [ertz], andragaieen...*
- Plurala: *bi umeen [gorputzei], ezkonberriin [oian], begiñ [aurreti], mendiko iiziin [bildurrik], iraunsugeen, gurasoon [etxea], kristauen [arteen]...*

SOZIATIBO

- Singularra: *soñekookiñ, artaldeekiñ, burrunziikiñ, deabruukiñ, ateeekiñ; iitaieekin...*
Hitza kontsonante batez amaitzen denean ere maiz bokal luzea agertzen da: *adarmuturrekin, bee eraztuneekin...*
- Plurala: *bee ardiikiñ, idiikiñ, eskuukiñ, loraakiñ, neskameekiñ, bee mandookin...*

PARTITIBO

- *izugarriik, asolbizioik, neskameik...*

INESIBO

- Singularra: *itxasoon erdiin, ezkarreko eskuun, koltoon, burrunziin, lepoon, gerriin, bazkalondoon, bekokiñ, zugipeen...*
- Plurala: *aurreko aldiittan, illuntzeetan, eskuutan.*
- Mugagabea ‘i’ laburra dago: *euzkittan.*

ADLATIBO

- Mugagabea: *sutaa, autsetaa, urtaa...*
- Singularra: *urritz-gañea, ibai ertzea, etxera...*
Eta bizidunekin: *zalduneana, jabeaana, erregeana, oixpoaana...*
- Plurala: *erriittaa; eztaietaa, odaietaa...*

ADLATIBO BUKATUZKOA

- Singularra: *leizeaño, Akelarreraño, Mikolaalderaño, tokiaño, lepoaño, etxeaño, zuloaño...*

ABLATIBO

- Plurala: *begiittati*.

INSTRUMENTALA

- *Patxiizaz*.

- Plurala: *sorgiñezaz*.

Sinkretismo ugari gertatzen da deklinabidean:

1. Absolutibo plurala, ergatibo singularra eta ergatibo pluralak, hirurak marka berberaz agertzen dira. Adibidez: *zaldiik* (abs. pl.); *itelbiik* (erg. sing.); *ardiik* (erg. pl.).
Hitz-oina '-a'z amaitzen denean pluralak, absolutoa eta ergatiboa, marka berberaz agertzen dira, antza: *ankaak* (abs. pl.); *anaie-arrebaak* (erg. pl.).
Ergatibo singularra, oro har, disimilazioaz agertzen da (<*neskeek*> (neska + -ak > *neskeak > neskeek)...); hala ere, 'ama', 'arriba' eta 'alaba' hitzek disimilatu gabeko formez azaltzen dira.
2. Berbera da datibo singularreko eta pluraleko marka: *buruuri* (sing.); *zazpi buruuri* (pl.).
Hitz-oina '-a'z amaitzen denean: *erregeen alabaari* (sing.); *beste bi alabaari* (pl.).
3. Soziatibo, destinatibo... kasuetan ere singularreko eta pluraleko markak berberak dira.
4. Genitibo singularra, plurala eta inesibo singularra marka berberaz azaltzen dira: *itxasoon [erdiñ]* (gen. sing.); *gurasoon [etxeen]* (gen. pl.); *kolkoon* (ines. sing.).

Aldaketa morfofonologikoak:

- a) -e, -i, -o, -u + a > hitzaren berezko bokala luzatu egiten da azentuaren karga beregain hartuz. Adibideak: *iru zaldiik, umeek, auzook; usook, neskatook, itelbiik, bixiguuk, jiganteek; aurrekoori; itxasoon, bixiguun; bazkaloon, bekokiñ...* '-e' sekunkario (-i/-u ondoren a > e asimilazioaren ondorio, alegia) denean ere, bokal luzamendua gertatzen da: *anaieek, anaieeri*.
- b) Aurreko atalean aipatutako bokal luzamendua burutu ondoren inoiz bokal luzea laburtu egiten da: *bekokiñ [erdia]*.
- c) Analogiaz, askotan kontsonantaren eta diptongoaren ondoren bokal luzea dugu: *motilleeri, bee gizonaari, zaarrenaari, legoiaai; lapurren [bizilekue], oiaan [ertz]*...
- d) <oi> diptongoaren ondoren ez da mugatzailea ixten: *neskamemorroiak, legoiaai, oiaan (ertz)*...

2.1.11. Deklinabidean, -a + a > -ea

Bizkaian eta Araban indar handia duen disimilazio bilakaera hau deklinabide singularreko kasu guztietan egonkortasun eta sistematikotasun oso handiaz betetzen da. Pluralean, aldiz, salbuespen bakarra izan ezik, ez da inoiz betetzen.

Salbuespenekin jarraituz, singularrean bertan ere, hiru hitz beti disimilaziorik gabe agertzen dira: ‘ama’, ‘alaba’ eta ‘arriba’, alegia.

Azter ditzagun kasuz kasu -a bokalaz amaitzen diren hitzen deklinazioa.

ABSOLUTIBOA

– Singularra. Ia sistematikoki burutzen da disimilazioa: *bee galderea, mezea, neskea, katillu saldea, pikea, denborea, bearragoko gauzea, erminttea, ixkimillea, arrautzea, zapatea, keizea, aren entzuera, eundañoko pestea, oiturea, zar-itxurea, egur sortea, eskolea, lamiñea, een ezkontzea, elizea, urrezko sobrekamea, gañeko narrupillea, Jentillen akabärea, sokea, idipuskea.*

– Plurala. Disimilazioa, oro har, ez da burutzen. ‘Alaba’z gainera, besteak beste, ondoko adibideak agertzen dira, *ankaak, eskillaraak, animaak, sortaak...*

Hala ere, disimilazio aztarnarik bada: *nee bi aizpeek.*

ERGATIBOA

– Singularra: -a + a > ea disimilazioaren ondoren, -ea > -ee bokal luza-mendua gertatu da hemen ere: *neskeek, lamiñeek.*

Salbuespenak: *erregeen alabaak, bee amak.*

– Plurala: *Anaie-arribaak.*

DATIBOA

– Singularra: *arrantzeeri, karrereeri, een sobrekameeri.*

Salbuespenak: *erregeen alabaari, amari, amaari.*

– Plurala: *beste bi alabaari.*

GENITIBOA

– Singularra: *neskeen, leize atakeen [ondoan], jentillen sobrekameen [gure], txageen [puntan].*

Salbuespenak: *bee alabaan, txaran [puntan], animaen [galgarria].*

SOZIATIBOA

– Singularra: *bee ezpateekiñ, eskupeteekiñ.*

Asimilaziorik gabe berriz: *bee alabaakin, erregeen alabakiñ, amaakiñ.*

– Plurala: *Beren kollaraekin, Bee txitakiñ, seme-alabaakiñ, atzeko bi ankaakiñ.*

INESIBOA

–Singularra: *leize-atakan.*

ADLATIBO

–Singularra: *eskolaa, olaa...*

Aldaketa morfofonologikoak

Aipatutako disimilazioaz gainera, zenbait aldaketa morfonologiko burutzen dira:

- a) -ea > -ee bokal luzamendua maiz gertatzen da: *aizpeek, neskeek, karre-
reeri, sobrekameeri, neskeen, atakeen, txageen...*
- b) Aipatutako disimilazioa burutzen ez denean, oro har, bokal luzea gertatzen da: *ankaak, alabaari, ankaakiñ...*
- c) Inoiz a + a > a gertatzen da: *arriba, ama, amak, amari* (baina baita <amaari> ere), *txaran [puntan], alabak, alabakiñ* (baina, baita, <seme-alabaakiñ>)...

2.1.12. Ergatibo pluralean -ak

Mendebalde osoan bezala, ergatibo pluralean -AK agertzen da: *neskame-morroiak...*

Aldaketa morfofonetikoak:

- a) Aurreko silaban i/u dugunean, iada ikusi dugun bezala, gehien-gehienetan, a > e bilakaera gertatzen da: *etsaiek, artzaiek, jentillek...* Salbuespena: *neskame-morroiak*.
- b) Morfema mugan -e, -o, -u, -i bokala + -ak dugunean, bokal luzamendua dela eta, ia sistematikoki bokal luzea agertzen da, '-a'-k beste bokalaren ebaki puntua hartzen duela: *neskameek, ardiik...*
- c) *neskeek, aizpeek*³⁷. Honako bilabidearen ondoren: -a + ak > -eak disimilazioaz > -eek.

2.1.13. Soziatiboaren marka eta balioa

Etxarri eta inguruetan '-ki' marka baden arren, Ataungo hizkeran, soziatiboan, -KIN marka besterik ez da agertzen.

Balioari dagokionez, Ataunen soziatiboak, askotan, instrumentalaren balioa hartzen du:

- *bee astasuneekiñ iurtzi.*
 - *bee ezpara (sic) zorrotzaakiñ moztu.*
 - *mailluukiñ kax-kax-kax leioa jooz*
 - *bee esku ederraakiñ ataa.*
 - *ei' zazu lurreen makila onekiñ arrasto' at etab.*
- Beste askotan, ordea, zuzen agertzen da:
- *sokaz lotu andrea kurteskillareeri.*
 - *iltzez oiaari josi.*
 - *botiñek galalez betee*
 - *buru-gañe aiez zuri zuri zoola.*
 - *pikaz iurtzi.*
- etab.

³⁷ Aurreko silabako 'i' ren eraginez, 'a' > 'e' bilakaera dugu ondoko adibideetan: <anaie bat>, <anaieek>. 'Ahizpa' eta 'lamiña'ri dagokionez, ordea, <aizpa bat> eta <lamiña bat> agertzen dira, ez <aizpe bat> eta <lamiñe bat>. Beraz, pentsatu behar kasu hauetan burututako bilakaera a + a > ea dela.

2.1.14. *Destinatiboaren markak*

Destinatiboan -TZAT marka maizago agertzen den arren, -TZAKO ere jaso dugu. Lehena agertzen da honako adibideetan: *ietzat, beetzat, seme zaarrenaantzat, eunezkoontzat, gauekoontzat, Zapataitxikiintzat, zuuntzat...* '-tzako' jaso dugu beste adibide hauetan: *neetzako, aantzako*.

2.1.15. *Ablatiboaren aldaerak*

Ablatiboak, euskalkien arabera, aldaera desberdinak ditu: -ik (rik), -ti (di), -tik (dik) eta -tikan; -rean ere bazen bizk. zaharrean. Lehena bizk., b.-naf., lap., erron. eta xubereraz agertzen omen da; -ti, berriz, bizk., b.-naf. eta xubereraz; eta -tikan, azkenik, g.-naf., gip. eta lapurteraz³⁸. Mitxelenak ere -ti aldaera aurkitu zuen bizk. eta zubereraz³⁹. Eta azkenik, A. Lakarrak dioenez, XVIII. mendeko Goierriko euskaran ere -ti dago⁴⁰.

Aldaera ahostunak (-DI, -DIK, -DIO...) sudurkariaren ondoren azaltzen dira: *emendi, oaindi, barrundi, nigandi, nuneoandi...*

Ataunen ablatiboa osatzeko ugarien -TI/-DI aldaera erabiltzen bada ere, beste hauek ere agertzen dira: -TIK/-DIK, -TIO/-DIO eta are -RIK ere.

2.1.15.1. Ataungo hizkeran, oro har, -TI/-DI agertzen da: *urtati, bertati, ateti, zagitti, atzeti, kuebati, inparnuti, itzeti, kolkoti, erritti, labeti, bizkarreti, etxeti, mingañeti, presondegitti, zeruti...*

Izen berezietan -TI/-DI azaltzen da soil-soilik: *Lazkauti, Layoati, Ormazarretati, Jentilbaatzati, Naparrooti, Larrunarritti, Ataundi...*

Bizidunekin, berriz, -GANDI agertzen da: *nigandi, beaandi*.

Denbora balioarekin ere beti -TI/-DI agertzen da: *geozti, urduti, iruetati...*

'-DIO' ere agertzen da: <oaindio> (behin <oaindi>), eta behin bakarrik bada ere, baita -TIK: <goizetik>.

2.1.15.2. Jaso ditugun -TIK/-DIKdunen kopurua oso mugatua da: *autik, illeeta-tik⁴¹, etxetik⁴², atezulotik⁴³, emendik⁴⁴, andik⁴⁵, nuneoandik*.

³⁸ Azkue, 1969, 331-32 orr.

³⁹ Mitxelena, FHV, 236 orr.

⁴⁰ Lakarra, 1986.

⁴¹ <Illeetati> ere agertzen da.

⁴² Baita <etxeti> ere.

⁴³ Baina <atezuloti> maizago azaltzen da.

⁴⁴ <Emendi> eta <emendio> ere agertzen dira.

⁴⁵ <Andio> ere agertzen da, baina hiruetan ugarien <andi>.

2.1.15.3. Ablatiboarekin jarraituz, 'oaiñ', 'emen' eta 'an' adberbioei lotuta -TIO/-DIO agertzen da soil-soilik: *oaindio*⁴⁶, *emendio*⁴⁷, *andio*⁴⁸.

2.1.15.4. Eta azkenik, -(R)IK agertzen da <etxeik etxe> eta <sasipeik sasipe> esapideetan.

2.1.16. Motibatiboaren markak

Motibatiboan -TI eta -TIO, biak lehia agertzen dira.

Jaso ditugun -TI aldaeraren adibideak: *orreati/orreatio*; *orraati/orraatio*; *zeati/zeatio*; *ikusteaati*; *eiñ alaak* (sic) *eiñ aati*; *iñalakookati* 'en ningún modo'; *jigante'ateati*; *bikatiiree* 'bigatik ere'.

Aipatu berri ditugunekin batera, -TIO aldaeraren adibide hauek ere jaso ditugu: *kristauek ez izen aatio*; *Jainkoaatio*; *beaakatio*; *zelat eitteatio*; *beilla ibili aatio*.

Aldaketa morfologikoak:

a) -o + a > oo, bokal luzamenduaz: *iñalakookati*.

b) -a + a > aa: *orraatio*, baina baita <*orreatio*> ere.

c) egin > eiñ > iñ

*iñalako + ak > *iñalakook*, bokal luzamenduaz.

iñalakook + -gati > *iñalakookati*, ahoskabetze bilakabidez.

2.1.17. Prolatiboaren marka

Prolatiboa -TZAT markaz azaltzen da beti:

– *bee burue apaiztat autau ta...*

– *esa'ementzion ze bee alabaatako'at anratat eskeintzen ziola.*

– *Erregeek nunbait gizon azkartat artu eta...*

– *Baño neskatook beiz ee ue neskametzat artu zezala errege eitte'ementzion.*

– *bee burue bazkaaritzat iizi ari emateko.*

etab.

2.1.18. Hurbiltze adlatiboa

Hurbiltze adlatiboan, bi adizlagunetan -UTZA marka agertzen da: *autza*, *unutza*.

Gainontzekoetan izena gehi <aldea> posposizioa dugu: *Muru aldea*, *Aye aldea*, *zeru aldea*, *Lazkau aldea*, *ermintaa-aldea...*

⁴⁶ <Oaindi> ere agertzen da.

⁴⁷ Goian aipatu dugunez, <emendi> eta <emendik> ere agertzen dira.

⁴⁸ <Andi> eta <andik> (azken hau behin bakarrik) ere agertzen dira.

2.1.19. 'Baittan'

Sortaldeagoko forma dirudien <baittan> jaso dugu Ataunen: *Geo semeek een baittan ementzioen...*

2.1.20. *Nola? eta nolako?*

Bizkaerako 'zelan' eta abarretik alderatuz, <nola> eta <nolako> galde-tzaileak ageri dira aztergai.

2.2. Aditzaren morfologia

2.2.1. Aditz laguntzailea

Bildu ditugun adizkiak ekarriko ditugu hona:

2.2.1.1. Izan (Nor erakoak)

Oraina:

| | |
|-------|--------------|
| ni | <i>naiz</i> |
| hi | <i>aiz</i> |
| hura | <i>da</i> |
| gu | <i>geala</i> |
| zu | <i>zea</i> |
| zuek | — |
| haiek | <i>die</i> |

Iragana:

| | |
|------|---------------|
| hi | <i>intzen</i> |
| hura | <i>zan</i> |
| gu | <i>giñen</i> |

Alegiazkoa:

| | |
|------|--------------|
| hura | <i>-litz</i> |
|------|--------------|

2.2.1.2. *EDIN (NOR erakoak)

Oraina:

| | |
|-------|------------------|
| hura | <i>deilla</i> |
| haiek | <i>dittezela</i> |

Iragana:

| | |
|------|-------------|
| hura | <i>zeiñ</i> |
|------|-------------|

Iragana [+ke]:

ni *neike*
hura *litteke.*

Aginte adizkiak:

hi *ai (aiala), ari*

2.2.1.3. IZAN (NOR-NORI erakoak)

Oraina:

HURA
hiri *zataan*⁴⁹
hari *zaio, zayo*
guri *zaiun*
zuri *zatzu.*

Iragana:

HURA
hari *zitzaion, zitzayon*
haiei *zitzaien*
HAIEK
hari *zitzaizkion, zitzaiotzan, zitzekan*

2.2.1.4. *EDUN (NOR-NORK erakoak)

Oraina:

NI
hik *nauk/naun*
haiek *nauenak*
HI
nik *aut*
HURA
nik *dedana*
hik *dek, deaan/ den*
hark *do*
guk *deu*
zuk *dezu*
zuek *(de)zuia, baazuia*
haiek *doia, dooia, doeela*

⁴⁹ <Eta bixigu orrek esa'ementzion ze: gaur etxeakoon bidea leenengo ataatzan zataan gauzea emante badiik, eundañoko abeastu aut.> 'Si me das el primer ser que te salga...'

| | |
|------|--------------------------------|
| | ZU |
| nik | <i>zaitu(d)an</i> |
| hark | <i>zaitu</i> |
| | ZUEK |
| nik | <i>zaizteer</i> ⁵⁰ |
| | HAIEK |
| nik | <i>ditut, dittut</i> |
| hik | <i>dittuk (dittuaan)/ditun</i> |
| hark | <i>dittu</i> |
| zuk | <i>dittuzu</i> |

Iragana:

| | |
|-------|-----------------------------|
| | NI |
| zuk | <i>ninduzun</i> |
| | HURA |
| nik | <i>noon</i> |
| hark | <i>zoon</i> |
| guk | <i>genduuna</i> |
| haiek | <i>zuen, zoen eta zoeen</i> |
| | GU |
| hark | <i>ginduuna</i> |
| | HAIEK |
| hark | <i>zittun</i> |
| haiek | <i>zittuen, zittuzten</i> |

Alegiazkoa [+ke]:

| | |
|-------|------------------------------|
| | HURA |
| nik | <i>nenduke</i> ⁵¹ |
| | HAIEK |
| haiek | <i>littuuzkeela</i> |

2.2.1.5. *EZAN (NOR-NORK erakoak)

Oraina:

| | |
|-----|---------------|
| | HURA |
| guk | <i>dezaun</i> |

⁵⁰ «Biok jango zaizteet, emate ezpadian.»

⁵¹ <Ni ilko nauenak arrautza orrekiñ bekokîñ jo bearko nenduke.>

| | |
|-------|-------------------------|
| | HAIEK |
| guk | <i>ditzaun</i> |
| | <u>Oraina [+ke]:</u> |
| | HURA |
| hik | <i>dezaken</i> |
| | <u>Iragana:</u> |
| | HURA |
| hark | <i>zezan, zezala</i> |
| haiek | <i>zezeen</i> |
| | HAIEK |
| hark | <i>zitzala, zitzela</i> |
| | <u>Alegiazkoa:</u> |
| | HURA |
| zuk | <i>lezakezu</i> |
| | <u>Aginte aditzak:</u> |
| | NI |
| zuk | <i>nazazu</i> |
| zuek | <i>nazazuia</i> |
| | HURA |
| hik | <i>zak/zan</i> |
| zuk | <i>zazu</i> |
| | HAIEK |
| hik | <i>itzek</i> |
| zuk | <i>itzazu</i> |

2.2.1.6. *EDUN (NOR-NORI-NORK erakoak)

Oraina:

| | |
|------|--|
| | NIRI |
| hik | <i>dik⁵², diik, diaak</i> |
| hark | <i>dit, ditt; diaan, diin (< didan)</i> |
| zuk | <i>di(d)azu</i> |
| | HIRI |
| nik | <i>diaat, deat eta deaat</i> |
| hark | <i>dik, diik/din</i> |
| guk | <i>diau</i> |

⁵² <Eta txingurrik ee esa'ementzion: TXINGURRI esaten deaan bakoitzeen txingurri biurtuko aiz; baño ortaako nee bizkarreti puska'at kendu bear dik.>

HARI

| | |
|-------|-----------------------------|
| hik | <i>diok</i> |
| hark | <i>dio</i> |
| haiek | <i>dioeen</i> ⁵³ |
| zuk | <i>diozu</i> |
| zuek | <i>diozuuia</i> |
| haiek | <i>dioia</i> |

GURI

| | |
|-----|---------------------|
| hik | <i>diuk; diuaan</i> |
|-----|---------------------|

ZURI

| | |
|------|--------------|
| nik | <i>dizut</i> |
| hark | <i>dizu</i> |

ZUEI

| | |
|-----|----------------|
| nik | <i>dizueet</i> |
|-----|----------------|

HAIEI

| | |
|-----|--------------|
| zuk | <i>diezu</i> |
|-----|--------------|

Iragana:

NIRI

| | |
|------|---------------|
| hark | <i>zieren</i> |
|------|---------------|

HIRI

| | |
|-----|-------------|
| nik | <i>nian</i> |
|-----|-------------|

HARI

| | |
|-------|----------------------|
| hark | <i>zion</i> |
| haiek | <i>zioen, zioeen</i> |

GURI

| | |
|-------|---------------|
| haiek | <i>ziueen</i> |
|-------|---------------|

HAIEI

| | |
|-------|---------------------|
| hark | <i>zien, zieren</i> |
| haiek | <i>zieren</i> |

Alegiazkoa [+ke]:

HARI

| | |
|-------|-------------------------------|
| haiek | <i>baliokea</i> ⁵⁴ |
|-------|-------------------------------|

ZURI

| | |
|-----|---------------|
| nik | <i>nizuke</i> |
|-----|---------------|

⁵³ <Urrezulo'ko Amurea esaten dioeen arripilla'at ba-da Dorrosorogañe'n.>

⁵⁴ <Zapoorri ue kendu eta olako iturritan garbittu-ta gaixoori artuerazingo baliokea, laster sendauko oke.>

Oraina (NOR: plurala):

HIRI
nik (d)itzaan⁵⁵, diitzenak⁵⁶

GURI
hark diutza

Iragana:

HARI
hark ziotzan
haiek ziotzeen

Iragana [+ke]:

HARI
hark ziokeela⁵⁷

2.2.1.7. EGIN (NOR-NORI-NORK erakoak)

Oraina:

HIRI
hark deiñala⁵⁸

HARI
guk (d)iuun⁵⁹

GURI
hark dei(g)ula

Iragana:

HARI
hark etzeion⁶⁰, zeiola

Aginte aditzak:

NIRI
zuk iazu, eazu

⁵⁵ <nee etxea juun da nik ainduko'itzaan iru gauza eitten baittuk, galdu'itt iaan ondasunek atzea eskuutaatuko'ittuk.>

⁵⁶ <«Ez, ez diitzenat kenduko, ni emendi etatze'ezpanaun.»>

⁵⁷ <Artu ta erregeen aurea eaman ementzoeen. Baño ez ark ezer esan nai erregeeri. Bakarrik erregeen alabaari azaldu nai ziokeela zeinñtan.>

⁵⁸ <Neska, zer eingo dion orri?
Eman deiñala bazkaari.>

⁵⁹ <Lapurte nun bizi zan ikusi beartzoela ta «otsomanzuuia odolarrastoori seituu iuun», esan ementzieen gazteenak besteeri.>

⁶⁰ <Andra xaar bat azaldu ementzan urduuntxe ateondoan. Patxi-ermentarie ikusi zoonen oso larrittu ementzan eta, gaitzik eiri etzeion, beaakatio ondoesanez asi ementzan: sekulako gizon ongillea izen zala munduun, di oolako besta gauza asko.>

hik HARI
iok
zuk iozu

GURI
zuk iuzu

Iragana (NOR: plurala):

hark HARI
zeiozkala⁶¹

hark HAIEI
zeizkiela

Aginte aditzak:

hik NIRI
eiatzak⁶² eta iatzak⁶³

hik HARI
iotzaan⁶⁴, eiotzaan⁶⁵

2.2.1.8. *EZAN (NOR-NORI-NORK erakoak)

Oraina:

zuk NIRI
zaidazu

2.2.2. Aditz trinkoa

2.2.2.1. EGON aditzaren adizkiak

Oraina:

ni nago
hi aola

⁶¹ <Zaldunek ikusi zooneko, aldeatu eta esa'ementzion, mesedez buruko zorriik il zeiozkala.>

⁶² <-Oriezaz gañera

Nere uztar-idie,

Beren kollaraekin

Or dek lapurtue.

Baldiñ ee, itzul eiatzak,

Bestela ez dek izengo

Gauz onik ietzat.>

Beste adibide bat:

<Apiiltxo, Apiiltxo, ekaeiatzak egun bi t'erdi, artzai oni galdu eioatzaan bere eun ardi t'aari.>

⁶³ <«Kenduiatzak nei ook», deadar eitte ementzion sorgiñek.>

⁶⁴ <¡A apiiltxo, apiiltxo!

Eketzak eun bi ta erditxo,

Artzai orri kendu iotzaan eun ardi ta aarie.

Eta beaari ezkerreko begie.>

⁶⁵ <Apiiltxo, Apiiltxo, ekaeiatzak egun bi t'erdi, artzai oni galdu eiotzaan bere eun ardi t'aari>.

hura *dao, dau, dago*
zu *zaare*
haiek *daare*

Iragana:

hura *zeoon*
haiek *zeeren, zerela*

Alegiazkoa:

hura *-leo*

Aginte aditzak:

hi *ago*

2.2.2.2. ETORRI aditzaren adizkiak

Oraina:

hura *datorrenen*

Iragana:

hura *zeоторren, zetorra, zeоторrela*
haiek *zeotortzen, zetoztela, zetozela*

Aginte aditzak:

hi *ator*

2.2.2.3. IBILI aditzaren adizkiak

Oraina:

hura *dabilen⁶⁶*
zu *zailtzen⁶⁷*

Iragana:

hura *zabilen, zebillen, zeilen*
haiek *zebiltzen, zeiltzen*

2.2.2.4. JOAN aditzaren adizkiak

Orainaldia:

hura *dijoa, dijoo*
haiek *dijootzela, badijootz, badijoatz*

⁶⁶ <-Nere illoorreen ez diñat
Sasiñ dabilen ardirik.>

⁶⁷ <tori somprallu au, ta, orrekiñ zailtzen artên, ez da zûtzat gauza izkutukoik izengo, danai igarriko diezu.>

Iragana:

hura *zijoon, zijo(o)la*
haiek *zijootzen, zijootzan*

Aginte aditza:

zu *zoatz*

2.2.2.5. EDUKI aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA

nik *dauket; dauke(d)an, dauke(d)ala*
hark *dauken*
zuk *daukezu*

Iragana:

HURA

hark *zeuken*
haiek *zeuzken*

Alegiazkoa:

HURA

nik *baneuke*

2.2.2.6. EKARRI aditzaren adizkiak

Oraina:

HI

hark *eakarrela*⁶⁸

HURA

nik *dakarret*
guk *dakartzeu*

Iragana:

HURA

hark *zeekarren, zeakarren*

⁶⁸ <-Baa, irausungeek i galtzeko zoriin eakarrela uste niaan nik.> Hark-hi, ekarri.

2.2.2.7. ERABILI aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA

hik *daabilek*
zuk *daabiltzu*

Iragana:

HURA

hark *zeabille(e)n*

2.2.2.8. ERAMAN aditzaren adizkiak

Iragana:

HURA

hark *zeaman, zeamarrela*

HAIEK

haiek *zeamatzeela*

2.2.2.9. *IO- aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA

zuk *diozun*⁶⁹

Iragana:

HURA

hark *zion*

2.2.2.10. IRITZI aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA

hark *deritza*⁷⁰

⁶⁹ <-Oinbesteaño diozun ezkeo, orraztu iazu baa.>

⁷⁰ <-Or goien zeok erminta
San Bartolome deritza.>

HARI
nik *deizkiot*⁷¹
hik *deizkion*⁷²

2.2.2.11. IRUDITU aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA
zuk *dirudizu*

2.2.2.12. JAKIN aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA
hik *dakik/dakin*
zuk
dakizu
zuek *baakizuia*

Iragana:

HURA
hark *zeekiñ*
haiek *zekien*

2.2.2.13. EUTSI aditzaren adizkiak

Oraina:

HARI
hik *deutsok*⁷³, *deutselakoan*

2.2.3. Aditz laguntzaileen alokutiboak

Laguntzailearen formak ekarriko ditugu hona lehendabizi.

⁷¹ <euzkialdeerdi'ateti beidau ezkeo, semea eingo doola deizkiot; eta besteti beiz, alaba eingo doola.>

⁷² <¿zer deizkion: ni ala gatza da bearraagoko gauzea munduun?>

⁷³ <Nere buztanari deuselakoan ota zuztarrari deutsok.>

2.2.3.1. IZAN (NOR erakoak)

Oraina:

| | |
|-------|----------------------------|
| ni | <i>nok, nauk/non, naun</i> |
| hura | <i>dek/den</i> |
| gu | <i>gaittuk/gaittun</i> |
| haiek | <i>(d)ittuk</i> |

Iragana:

| | |
|-------|--|
| hura | <i>oan⁷⁴, oaan⁷⁵</i> |
| haiek | <i>ittuun⁷⁶</i> |

Alegiazkoa [+ke]

| | |
|------|-------------------------------|
| hura | <i>oke⁷⁷</i> |
| gu | <i>gentzakek⁷⁸</i> |

2.2.3.2. *EDIN (NOR erakoak)

Alegiazkoa [+ke]:

| | |
|------|------------------|
| hura | <i>baliteken</i> |
|------|------------------|

2.2.3.3. IZAN (NOR-NORI erakoak)

Iragana:

| | |
|------|-------------------|
| | HARI |
| hura | <i>zitzaioaan</i> |

2.2.3.4. NOR-NORK erakoak

Oraina:

| | |
|------|---|
| | HURA |
| nik | <i>deaat, deat, diaat, ba' diat/diñat</i> |
| hark | <i>dik/diñ</i> |
| guk | <i>diau</i> |

| | |
|------|---------------------------------------|
| | HAIEK |
| nik | <i>zeetuaat⁷⁹/zeetunat</i> |
| hark | <i>zeetuk</i> |

⁷⁴ <Lenau Lauzpeltzen ardazle sail aundie gauero-gauero bildu oi emen'oan.>

⁷⁵ <Ta ez eme oaan geiao aren otsik aitzen.>

⁷⁶ <Egunetan aren eske etxekook eta auzook ibili eme'ittuun.>

⁷⁷ <Zapoorri ue kendu eta olako iturritan garbittu-ta gaixoori artuerazingo baliokoa, laster sendauko oke.>

⁷⁸ <Juun gentzakek naiz.>

⁷⁹ <Oaiñ jan bear zeetuaat./Ie buru ta belaarri.>

Iragana:

| | |
|-------|-----------------------------|
| | HURA |
| nik | <i>niaan</i> |
| hark | <i>zian, ziaan, zeean</i> |
| haiek | <i>zieren</i> ⁸⁰ |

| | |
|-----|------------------------------|
| | HAIEK |
| nik | <i>neetuan</i> ⁸¹ |

Alegiazkoa [+ke]:

| | |
|-------|------------------------------|
| | HURA |
| hark | <i>likek</i> ⁸² |
| haiek | <i>likenea</i> ⁸³ |

2.2.3.5. NOR-NORI-NORK erakoak

Oraina (NOR: singularra):

| | |
|------|---------------------------|
| | NIRI |
| hik | <i>diik</i> ⁸⁴ |
| | HARI |
| hark | <i>zook</i> ⁸⁵ |

Iragana:

| | |
|-------|------------------------------------|
| | HARI |
| hark | <i>zioaan, zoaan</i> ⁸⁶ |
| haiek | <i>zooneenan</i> ⁸⁷ |
| | HAIEI |
| nik | <i>neenan</i> ⁸⁸ |

⁸⁰ <[Sorgin danak] Azkeneen, illargi-islaraa, pagogañeen mandazai gizaajoa ikusi emen-tzieren.>

⁸¹ <Lau ardi zaar ba-neetuan Sasiin belarra jaten.>

⁸² <Izenik bae ez likek
Ezer balio inoontzat.>

⁸³ <Baleekia, artuko likenea.>

⁸⁴ <ta autza nik eamatea nai badek, idi'at ekai bear diik bideen jateko.>

⁸⁵ <«Orrek on eintzook or daoon artzaitxo orri»>

⁸⁶ <-Nik ez -eantzun ementzoaan besteek.>

⁸⁷ <-Juun dan jaien, neska oi elizan mezatan zeola, besteei bezela, ogi beinkatue eman zooneenan.>

⁸⁸ <Baso'at eman neenan: ʔsmatzen baldin bazoeen zeekin eñe zan, zaku-urre'at aantzako izetekoon, eta bestela aan animaak neetzako izetekoon.>

2.2.4. Aditz trinko alokutiboak

2.2.4.1. EGON aditzaren adizkiak

Oraina:

ni *natxook*
hura *zeok*
haiek *zeerek*

Iragana:

hura *zeoan*
haiek *zeerean*

2.2.4.2. IBILI aditzaren adizkiak

Oraina:

ni *natxeillek*

2.2.4.3. JOAN aditzaren adizkiak

Iragana:

hura *zijoan*

2.2.4.4. EDUKI aditzaren adizkiak

Oraina:

 HURA
nik *zeukeaat*
 HAIEK
nik *zeuzkeat*

Iragana:

 HURA
hark *zeukeaan*

2.2.4.5. EKARRI aditzaren adizkiak

Oraina:

 HURA
nik *neakarreaan*⁸⁹

⁸⁹ <Bizi-biziik neakarreaan nik, gero nai genduuna beaakiñ eitteko.>

2.2.4.6. JAKIN aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA
nik *zekiaat, zeekiaat*

Alegiazkoa [+ke]:

HURA
haiek *baleekia*

2.2.4.7. *IO- aditzaren adizkiak

Oraina:

HURA
haiek *zoea*⁹⁰

Ikusten denez, hitano alokutiboetan Z- dago Ataunen.

2.2.5. Aditzaren pluralgileak

Aditzaren aniztasuna adierazteko, bizkaiera aukera bakar batez (-z: diguz, e.a.) baliatu ohi den bitartean, Ataunen pluralgile ezberdinak azaltzen dira.

2.2.5.1. Iragangaitzetako adizkietan honako morfema hauek ditugu:

- I(R)E: *die, zien*.
- RE: *zaare, daare, zeeren, zerela, zeerek, zeerean*.
- TZ: *badijootz, badijoatz, zoatz, zetortzen*.
- ZKI-: *zitzaizkion, zeizkiela...*
- Z-: *zetozeala*.
- KA-?: *zitzekean*⁹¹.

2.2.5.2. Iragankorretako adizkietan agertzen diren morfemak hauexek dira:

- TZA: *zitzaioztan, iotzaan, eiotzaan, ditzaun, zitzaala, itzazu, diutza, (d)itzaan eta diitzenak, ziotzan, itzek, itzazu, zijootzan*.
- TZE: *ziotzeen, dijootzela, zijootzen, zeamatzeela, dakartzeu*.
- IT-: *dittu, dittuk, dittuzu, zittuen, zaittuan, zaittu, gaittuk*.
- ET-: *zeetuaat, zeetunat, zeetuk, baneetuan...*
- Z-: *zaitzet, zeiozkala, zeuzken, zeuzkeat*.

⁹⁰ <Eratat gaiztakeriiri emanda aola zoea danak.>

⁹¹ <eta etxetik atera eta igesi jun eta orraziik aaztu zitzekean.>

2.2.5.3. Iragakorretako 2. pertsona pluralean. Agentearen aniztasuna adierazteko morfema ezberdinak agertzen dira:

- IA: (de) *zuia, baazuia, nazazuia, baakizua, diozia...*
- EE: *dizueet...*

2.2.5.4. Iragakorretako 3. pertsona pluralean:

- EE: *doela, zoeen; dioeen, zioeen; zioen; ziueen...*
- E: *zuen, zoen; zioen; zittuen; zekien.*
- EA: *etzekiñea, baleekia, likenea.*
- IA: *doia, dioia.*
- TE: *zittuzten.*

2.2.6. Agintera eta subjuntiboan 'egin' erroa

Aginteran eta subjuntiboan, N-N-N erako adizkietan EGIN erroa agertzen da:

- «*Apiiltxo, Apiiltxo, ekaeiatzak ('iezaizkidak) egun bi t' erdi, artzai oni galdu eioatzaan bere eun ardi t'aari*».
- *orraztu iazu baa.*
- *Esa' iuzu zuk eskolea nun daoon.*
- *otsomanzuuia odolarrastoori seituu iuun (diezaiogun).*
- *Eman deiñala bazkaari (hark-hiri).*
- *Jainkooi maiz errezatze' ementzioeen arren baso ue zeekiñ eiñe zeoon azaldu zeizkiela.*
- *gaitzik eiñ etzeion, beaakatio ondoesanez asi ementzan.*

....

Salbuespen bakarra <zaidazu> da: *San Miel, lagun zaidazu zuk emen.*

N-N erako aditzetan, aldiz, beti *EZAN erroa agertzen da: *dezaun, ditzaun, zezan, zezeen, zitzala, lezakezu, dezaken, zak, itzek, itzazu, nazazu, nazazuuia...*

2.2.7. Partizipioetan '-gi' marka

Partizipioetan -GI marka agertzen da zenbait adibidetan: *erabai* (baina <erabaki>), *ebai, jei*.

2.2.8. -atu > (-adu) > -au

Gaztelaniatik mailegatutako partizipioez gainera, euskal hitz eta mailegu zaharretan ere gertatzen da bilakaera hau. Kategoriari dagokionez, bilakaera hau [Iz./Izond.] oinarridunetan eta 'Osorik mailegatutako aditzak'etan gertatzen da soil-soilik. [IS + -ra/-gana], [IS + -z] eta [+zenbatzailea] oinarridunetan, berriz, ez da inoiz gertatzen.

2.2.8.1. '[Iz./Izond.] + TU' aditzetan. Ia automatikoki burutzen da bilakaera hau: *abixau, ingurau, aukerau...* baina *amorratu*.

Sail honetan kopuru handia osatzen dute oinarriko izena edo izenondoa bi silabaduna duten aditzek: *nekau* (neke + tu), *jokatu* (joko + tu), *librau* (libre + tu), *zorau* (zoro + tu), *luzau* (luze + tu), *askau* (aske + tu), *aldau* (alde + tu), *sendau* (sendo + tu), *saiau* (saio + tu), *formau* (forma + tu), *zulau* (zulo + tu), *trabau* (traba + tu), *asmau* (asmo + tu)...

2.2.8.2. Osorik mailegatutako aditzak. Sail honetako aditzetan ere, ‘-au’ agertzen da sarri: *kontau*, *juntau*, *izkutau*, *prantau*, *txupau*, *akordau*, *konpesau* ‘konfesatu’, *tokau*, *miau*, *madarikau* (< lat. maledicere)...

‘au’ren aldamenean, ‘-atu’ ere agertzen da ondoko adibideetan ikus daitekeenez: *tragatuuz*; *Saltatu*, *saltau*; *pentsatu*, *pentsau*; *arrapau*, *arrapatu*; *billatu*, *billau*; *beinkau* ‘bedeinkatu’, baina *ogibeinkatue*; *pasau* baina *pasatue*; *gertau* baina *gertatue* ere)...

Beste aldetik, beti ‘-atu’z agertzen dira beste aditz hauek: *geatu*, *barreatu*, *paratu*.

2.2.8.3. Oinarri batzuk beti ‘-tu’z agertzen dira:

2.2.8.3.1. [IS + -ra/-gana] + tu: *buruatu*, *gooratu*, *atzeatu*, *eskuutaatuko*, *mendeatu*, *alderatu*...

2.2.8.3.2. [IS + -z] + tu: *izentaatu*.

2.2.8.3.3. [+zenbatzailea] + tu: *erdibanaatu*.

2.2.8.3.4. ‘a’ luzearen ondoren beti ‘-tu’ agertzen da: *ikaatu*, *eraatu*, *akaa-tu*, *axaatu*, *pillaatu*...

2.2.9. -itu > -idu

-ITU > -IDU > -IU bilakaera inoiz ez da betetzen Ataungo hizkeran: *txikitu*, *abiitu*, *urritu*, *errukittu*, *garbittu*, *albizittu*, *zutittu*...

2.2.10. Laguntzailea beti partizipioari lotuta

Mendebalde osoan bezala, Ataungo hizkeran laguntzailea beti partizipioari eransten zaio: *galdu eiotzaan*, *seitu iuun*, *kenduiatzak*, *bialdu zezala*, *ekai zitzala*, *sartu zazu*, *zatituu zak*, *jarri itzek*, *aukerau zezala*, *jetxi gaittezen*, *bialduiaak*, *artuu zaun*, *sartu etzein*, *abiittu gentzakek*, *zaaldu zazu*, *kendu iotzaan*....

Dena den, aditzoinari lotutako adibideak ere badira: *jartzak*, *arzak*, *lagun zaiduzu*...

2.2.11. Partizipioa -ta morfemarekin

Partizipioa, oro har, -TA morfemaz agertzen da: *ixtita, sartuta, utzitta, ximelduta, ausitta, ainduta, akaatuta, ustuta, iurtzitta, eantsitta, nekauta, errukittuta, toloztauta, kenduta, iitzita, eseitta, biurtuta, zimurtuta, urrauta, berotuta, ikaatuta...*

Baina -(R)IK morfemaz ere agertzen da batueta: *arrituik, erdibanaatuik, beartuik, itxiik, naastuik.*

2.2.12. 'Ari izan'

'ARI IZAN' oso arrunta da Ataunen:

- *Kastillopranko bigarren botiñe oñeen sartzeen ai ementzan.*
- *Txistu oi leortzen ai ementzan pixkaka pixkaka.*
- *sakristaue kanpaia jotzen ai ementzan.*
- *Neskea geoz da tristeego jartzeen ai ementzan.*

2.2.13. Komunztadura

A. Lakarrak dioenez, komunztadura eza oso aspaldikoa da eta ez da bizk. osora hedatzen⁹². Azkuek eremu zehatz batera mugatzen zuen, hizkeraz bizkaieradun diren Gipuzkoa eta Arabako lurraldeetara, alegia.

Pedro de Yrizar-ren ustez, eremu hori zabalagoa litzateke. Goierriri dago-kionez, Zegama, Gabiria, Mutiloa eta Legazpin ez omen da objektuarekiko komunztadurarik betetzen eta Amezketeta, Ataun eta Itsasondon, berriz, bai; Zaldibia erdibidean omen dago⁹³.

2.2.13.1. Adizki trinkoekin.

Adizki trinkoekin, Ataungo hizkeran objektuarekiko komunztadura beti burutzen da:

- *Kastilloprankok iru alaba ementzeuzken*
- *Erregek, maiko salda t'ardook zakurrek zeamatzeela ikusi zooneen...*
- *(...) sorta aundiik dakartzeu-ta.*

...

Alokutiboetan ere komunztadura betetzen da: *iru zaldi zeuzkeat nik.*

⁹² Lakarra, 1986, 639-681.

⁹³ «En cuanto al empleo de las formas comunes a ambos números, correspondientes al auxiliar transitivo, dice Azkue que se usan en Cegama y Legazpia, y muchas también en Zaldivia (...).» «Los datos de Bähr, recogidos en la misma época (mende hasieran, alegia) en ocho pueblos de la variedad de Cegama, indican que en cuatro de ellos (Cegama, Gaviria, Mutiloa y Legazpia) se empleaban, para las flexiones de ambos números las mismas formas, sin pluralizador; en otros tres (Amézqueta, Ataún e Isasondo) utilizaban formas propias para el plural; en el octavo pueblo (Zaldivia), tal como indicaba Azkue, en unos casos efectuaban la distinción entre singular y plural, mientras que en otros no hacían tal distinción de número y usaban las formas de singular también para plural. En cuanto a Lazcano, nuestro colaborador A. Albisu nos dio formas propias para el plural.» Pedro de Yrizar, 1981.

2.2.13.2. Adizki perifrastikoekin.

2.2.13.2.1. NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erakoetan, oro har, komunztadura burutzen da. Adibideak:

- *[motillek] iru zaldiik makillka ezi ementziton.*
- *bi zakurren arteen lau buru kendu ementziotzeen.*
- *... eta pesta aundiik eiñ ementziotzeen.*
- *Ta legoiaai adagi danak izentaatu ementziotzan.*
- *nee alabak gauero oñetakook urratzen zeetuk.*

...

Hala ere, bada zenbait salbuespen:

- *zazpi buruuri mingañek kendu ementzieen motil gazte orrek.*
- *ta besteetan bezela saarrak oostu ementzieen.*
- *Motillek iruei eskuuk artu ementzieen.*

.....

2.2.13.2.2. NOR-NORI erakoetan komunztadura ez da beti betetzen. Hona ekarriko ditugun adibideetan, esaterako, ez dago komunztadurarik:

- *agertzen zayo berriro Elizakook.*
- *eta bi umeek batea ur eske asi emenzitzaion.*
- *Besta neskame guztiik muturka asi emenzitzaion.*
- *iruek oska jarri emenzitzaion.*
- *baño muñek jauzi zaionik ez dala sendatzen, eantzun ementzieen gizon arek.*

Beste batzuetan, ordea, komunztadura zuzen betetzen da. Adibideak:

- *Sorgiñik etzala zionaai sorgiñek irten emenzitzaioletzan bidea.*
- *Iraunsugeeri begi biik irten emenzitzaizkion.*
- *baño ume biik urtaa eroi emenzitzaioletzan ta bee begiñ aurreen antxe itto emenzitzaioletzan.*

2.2.14. Aditz-izenak

Oro har, aditz-izenak '-T(Z)EN'ez ageri badira ere, bada aditz-izen berezi bat, <joraketan>: *zuk joraketan aittu beaazu.*

2.2.15. 'Igo' aditza

Beti iragangaitza da:

- *Imatzene'ko iru anaie mendira io ementzien.*
- *Bein Samartintxiki io emen da Muskiko kobaa.*
- *Io ai urduun or ataiko piku gañea.*

...

2.2.16. 'Irten' aditza

'Irten' aditza ere iragangaitza da maiz:

em nun irteten dan leize barrundi Iraunsugea.

– *Jokalarie oso triste irten ementzan andi.*

– *Orreatio, nola txakurre irtengo zizaion ze, bee seme Kanillotxikik irte-
'ementzion.*

– *Sorgiñik etzala zionaai sorgiñeek irten emenzitzaioztan bidea...*

– *Iraunsugeeri begi biik irten emenzitzaizkion.*

...

Hala ere, zenbait adibidetan iragankor gisa agertzen da:

– *bee seme Kanillotxikik irte'ementzion.*

– *Gezurra irten din neska.*

– *danak eaman bearreko aize' at irten ementzoon.*

2.2.17. 'Behar'

'Behar', gehienetan, ukan laguntzaileaz agertzen da:

– *munduun ze gertau bear ote zoon ezin asmauik ementzeiltzen.*

– *¿zetaa juun bear deat nik autza?*

– *eta juun ein bearko diau.*

– *Bi anai zintzook mendia lanea juun bear ementzoeen.*

– *Eunero bateebatek Alarra io bear izete ementzoon.*

...

Hala ere, inoiz 'izan' laguntzaileaz agertzen da:

– *gau artan ze gertau bear ote zizaion billurrez.*

– *ta nunbaitt eze billatze ote zoeen saiau bear ziela.*

3. JOSKERA

3.1. Bi zenbatzailea

Ataungo hizkeran, ISnor (Izen Sintagma-nor) barnean 'bi' zenbatzailea eskuinetara zein ezkerretara agertzen da. Absolutibo mugatu gabea denean, sarritan eskuinean azaltzen da:

- *«Apiiltxo, Apiiltxo, ekaeiatzak egun bi t' erdi...».*
- *Beasingo baseerri bateen bizi ementzien senarr-emazte bi bost umekiñ.*
- *etxe artan anaie-arreba gazte bi bizi ementzien.*
- *Bizkai'ko erri bateko ardandegira juute ementzien sorgin bi ango ardo goxoa eata, gauero.*
- *artu zezala, alegie, guutze aundi' at sorbaldan, burniizko uuztai bat lepoon, katee sendo bi gerriin eta burniizko oñetakook...*

...

Baina ezkerrean ere agertzen da:

- *t'urduntxe bi gazte, zaldiz, izugarrizko erruun emendi aurrea juuntzien.*
- *Etoi ementzan Kastillopranko eta galde ementzion motilleeri ea bi gazte ikusi altzittuun, zaldiz, inguru artan pasatzen.*
- *biar garai ontaako etortzeko zezunak baa nik bi gazte.*
- *...bi anaie asi ementzien abadetaako ikasten.*
- *Jantzie ekai ementzion eta beaandi jakin ee bai inguruko bi emakume ziela oola zeitzenak.*

...

Absolutibo pluraleko markak hartuz, halaber, eskuinean nahiz ezkerrean agertzen da. Eskuinean dugu adibide hauetan:

- *...baño ume biik urtaa eroi emenzitziatortzan.*
- *Kastilloprankok ezkonberri biik iltzeko asmoa artu ementzoon.*
- *Urrungo euneen anaie biik mendira io ementzien...*
- *Iraunsugeeri begi biik irten emenzitzaizkion...*

...

Ezkerrean, berriz, beste adibide hauetan:

- *Bee bi zakurrek neskeen kama-adarra lotu ta bea erdiñ eskupeteekiñ jarri ementzan.*
- *Noizbaitteen-ee bi zakurrek iitxi ementzien palazioko ateeta.*
- *Orreati bi larriñak etxea lenau iitxi ementzien.*
- *Ilunaarreen etortzen die beste bi anaieek eta...*

– *iru zaldi oriik nee aitte ta nee bi aizpeek die.*

...

Ergatiboan ere, eskuinetara nahiz ezkerretara ager daiteke. Eskuinetara dago adibide honetan:

– *...zagi-ardo' at oian utzitta senar-emazte biik aldeñ ementzoeen.*

Ezkerretara, ordea, beste honetan:

– *Zaku-urreekiñ bi anaieek apaizetaako ikasteko bear aiñe ize ementzoeen.*

Datibo, genitibo eta sozietiboaren markaz agertzen diren izen sintagma guztietan, izenaren ezkerretara agertzen da:

– *Galdeera berbera eiñ ementzieren besta bi alabaariree.*

– *Ta urduun bi umeen gorputzeei eldu ta urtati agudo ataa ementzittuun*

– *nik bi beatzekiñ eldu bitarteen itxoiñ.*

– *Astook ordea atzeko bi ankaakiñ atea itxi ementzoon.*

– *Ba ementzijootzan morroi oi ta anrragaztea bi aurrekiñ eta txakur txiki' at ondoen.*

...

ASKO zenbatzaileari dagokionez, gehien-gehienetan izenaren eskuinetara agertzen da, baina ezkerretara ere azaltzen da behin:

– *Baño, oain asko tokitan bezela, leenau ba-ementzan Naparroom motill gaizto' at, izugarriik etzala esatentzoon.*

3.2. Aditza galdegaia denean

Aditza galdegaia denean EGIN aditza erabiltzen da. Adibideak oso ugari dira:

– *Beiñ Agerreko nausie gaizkittu eiñ ementzan.*

– *ta zakurrek aldeñ eiñ ementzion.*

– *Da ala abixtu eiñ ementzoon.*

– *Neska oi gaixotu eiñ ementzan.*

– *jigantea beaaree zerbaitt ikaatu eiñ ementzan orraatio.*

...

3.3. Galderetako al

Gipuzkeraz eta inguruetako hizkeretan 'bai-ez' erako perpausetan ageri den AL Ataungo hizkeran ere sarri erabiltzen da:

– *Ea ue gizona altzan galde ementzion.*

– *ba al dakin erregeen alaba sendau dala?*

– *Galdetu ementzion ea Kastilloprankoon etxea nuntzeoon altzeekiñ.*

– *¿Zu altzea Kanillo?*

– *Ea gazte bi, zaldi gañeen, aizeen erruun juuten ikusi altzittueen galdetu ementzieren.*

...

3.4. Konpletiboak

Konpletiboetan, gehien-gehienetan, -(E)LA menderagailua agertzen den arren, -(E)NA menderagailua ere jaso dugu bi adibidetan.

3.4.1. -(E)la

Adibideak:

- *Leize' aten gañeen daola Samielgo elizea esaten dooia.*
- *oñetakook eta kateea urratzeko, bee astasuneekiñ iurtzi bear zittuula esa'ementzion [deabruuk].*
- *Lapurre nun bizi zan ikusi beartzoela (...) esan ementzieren gazteenak besteeri.*

...

Menpekoari bidea emanez edo, sarritan perpaus nagusiaren ondoren ZE erabiltzen da:

- *onek esa'ementzion ze urrungo euneen jentille zeetorren garaiaiko ipurtaulkie sutan gorittuta jarri zezala.*
- *eta konpersoreek esa'ementzion ze txaga luzeateen gañeen jarri zezala sorgiñeen orraziie.*
- *Ta semeeri abixau ementzion ze aren anrreek txakurre ta katue eiñtzittula.*

...

ZE agertzen da, halaber, hitzunaren hitzak zuzen-zuzenean jaso eta konpletiboak menderagailurik gabe agertzen direnean. Adibideak:

- *ta (zaldunak) galdetu ementzion ze: «zertan zaare emen?».*
- *motilkoxkorrak (...) esa'ementzion ze: aitta, tori ura eskumusuak garbitzeko.*

...

3.4.2. -(E)na

Konpletiboetan gehienbat -(E)LA menderagailua azaltzen den arren, bizkaieraren ezaugarritzat jotzen den -(E)NAREN aztarnarik ere aurkitu dugu. Adibideak:

- *Ala zeilela, buruun zerbait zeukena igarri eiñ ementzion.*
- *Nausiik beelexe bee leengo andrea zana ezautu ementzoon.*

3.4.3. -(E)nik

Ezezko perpaus bakarrean agertzen da -(E)NIK:

- *baño sekulan ezer arkittu danik ez deu aittu.*

3.4.4. 'Aditz-izena + -ko'

'Aditz-izena + KO' ere agertzen da konpletiboa osatuz:

- *Eta esan zion txara bat atariin zutik sartzeko, eta aren punta pitzau eta orrazik paratzeko.*
- *Eiztariik bee zakur aatako' ati, erregeen maia eun artan leenbiziko ataatzan zan katillu saldea ekartzeko aindu ementzion.*

- *Urduun errege oi erabat sutu ementzan, eta bee morroiai aindu ementzieren ze: alaba gazteenaari, urrutiko mendi'atea eaman-da, an bizie kentzeeko; ta aren begiik eta biotza ataa-ta, beaari ekartzeko.*

...

Goiko adibideetan ikusten denez, ETA juntagailuak menpeko bi perpaus lotu ditzake.

3.5. Erlatibozkoak

Gehienetan ‘-(E)N + izena’ daukagu. Honelako adibide ugari agertzen dira:

- *Baitta erregeek alabaari artuerazin ee elizan galdu zitzaion ogibeinkatue.*
- *Entzun orduko, motikook eskuutan zeamen ogi guztie eman ementzion.*
- *¡Nee etxeen goizeko amaikaatan eitten doeen opille auan baneuke!*
- *Alakoateen, koba barruun erdi itxututa zeeon jentill zaar bat ataka aurrea ataa...*
- *Urrezu'ko Amurea esaten dioeen arripilla' at.*

...

Batzuetan ‘-(E)N + mugatzailea’ dugu:

- *Baño muñek jauzi zaionik ez dala sendatzen.*
- *Urduun abixau ementzoon opill ue eintzoonaa juuteko beaana.*

Alegia, ‘jauzi zaion gizonik, gauzarik...’ izango litzateke lehen adibidean eta bigarrenean ‘eintzoon pertsona’ edo.

Menpeko perpausoko aditza jokatu gabea ere izan daiteke. Adibidez:

- *Ea segurotxoon ee ziñek jan bear zoon zorritzu arek eindako opille.*
- *Eta ala sutan guritutako tenazaakin sudurreti eldu jentileeri eta sudurre moztu ementzion.*

...

3.6. Zehargalderak

Zehargalderak ugari agertzen dira. Adibideak:

- *Ta motillek urduun eskupelariook ataa ta ea aak ezautzen zittuun esa'ementzion.*
- *Motilleri bidea ataa ta ea aren aittek ze aindu zioon galdetu ementzion.*
- *Baño ez ementzoon ezautu zein zan.*

...

Gehienetan menpekoa iragartzeko EA agertzen da. Menpeko perpausetan ‘al’ eta ‘ote’ partikula modalak ere ager daitezke, betiere laguntzailearen edota adizki trinkoaren ezkerretara kokatuta.

‘AL’ agertzen da ondoko adibideetan:

- *Ta ea bazkaarie ona altzeon galdetu ementzion.*
- *Eta oniiree galdetze emen dio ea gizona al dan.*

...

‘OTE’ daukagu beste adibide hauetan:

- *Baitta jentil oi badijoo zuzen Beasingo olaa, gizonik an ote daoon galdezka.*

– *Noaan emendio Iruñako oixpoaana, nuneoandik neetzat barkamen edo asolbizioik ote littekeen.*

– *Eaztuneen otsa urruti xamarreen iruitzen nunbaitt jentileeri, eta kanpoti ote zan berean jarri ementzan.*

Zenbait adibidetan perpaus nagusia isilean gelditzen da:

– *Ea batebat egoten zaiun emen guri entzuten.*

– *Ea bi gazte pasau al dien zaldiz inguru ontan.*

– *Ea bi gazte ikusi al dittuan emen pasatzen.*

ETA juntagailuak inoiz menpeko bi perpausa lotzen ditu. Adibidez:

– *Urduun bikariook igarri ementzion zeatio andra arek sakristauei beida nai etzion eta zer gaitz zeuken.*

Konpletibo bat eta zehargaldera bat ere lotzen ditu ETA juntagailuak:

– *Eta konfesoregana juun zan esatera nola etortzen zitzezan eta ze ingo ote zoon.*

3.7. Baldintza perpausak

3.7.1. Adizki trinkoa

Gehienetan adizki perifrastikoa agertzen da protasian. Hala ere, behin edo behin, adizki trinkoa agertzen da. Hain zuzen ere, jaso ditugun baldintza alegiazkoetan adizki trinkoa agertzen da:

– *Zapoorri ue kendu eta olako iturritan garbittu-ta gaixoori artuerazingo baliokea, laster sendauko oke.*

– *¡Ja jaaai! Baleekia, artuko likenea.*

Adizki trinkoa aurkitu dugu, halaber, desira adierazten duten duten perpaus hauetan ere:

– *¡Nee etxeen goizeko amaikaatan eitten doeen opille auan baneuke!*

– *¡Ai, nee anaie emen baleo!*

3.7.2. Adizki perifrastikoa

Baldintza errealak eta gertagarriek aditz perifrastikoa daukate protasian.

3.7.2.1. Baldintza erreala:

– *Egarri baaiz, egarri, bazeukeaat eraari.*

3.7.2.2. Baldintza gertagarriak:

– *libre uzten badiaat, abeastuko aut.*

– *ta deabruuk deadar eiñ ementzion ze, beiz geldi eote ez bazan, itxasoa botako zoola.*

– *ta etxea datorreneen emen billatzen bazaittu, jan ingo zaittu.*

– *¡motell! geo, Patxik maien jartzeeko aintzen baik, ez aiala jarri.*

– «Ez, ez diitzenat kenduko, ni emendi etatze' ezpanaun.»

...

Goiko adibideetan ikusten denez, ondorioan (apodosian), indikatiboko adizkietik at, subjuntibokoak eta agintekoak ere ager daitezke. Halaber, laguntzailea isilean utzita (Ikus 3.7.2.2.1.) edo 'aditz-izena + -koan' (ikus 3.7.2.2.2.):

3.7.2.2.1. Laguntzailea isilean dela:

– *¡motell! Patxik maien jartzeeko aintzen baik, ez geo jarri; ezta zizalluun etzateko esaten baik ee.*

3.7.2.2.2. Aditz-izena + -koan:

– *Baso'at eman neenan: asmatzen baldin bazoeren zeekin eiñe zan,zakur-urre'at aantzako izetekoon, eta bestela aan animaak neetzako izetekoon.*

Aipatzekoa da, azken adibide horretan izan ezik, ez dugula 'baldin'en beste lekukorik jaso.

3.7.3. <Naiz> baldintza perpausetan

Beste adibide hauetan <naiz> agertzen da baldintza perpausak osatzeko:

– *T'urduun anrra gaixo arek, nearrez, bea ill zezala naiz, baño seme-alabatxo aak ez zitzala ill eskatze' ementzion.*

– *Juun gentzakek naiz.*

3.7.4. 'Aditz jokatugabea + ezke(r)o'

– *Jartzak bazkaarie eo aparie esa'ezkeo, mai orrek bazkaarie eo aparie bertan prantatze' ementzoon.*

– *Beean aurreen makillakixki esa'ezkeo, motill oi ez beste inguruko guztiik joka txikitu bearreen astee ementzan.*

– *¡nola zandu ardiik autza juun ezkeo?*

– *euzkialdeerdi'ateti beidau ezkeo, semea eingo doola deizkiot; eta besteti beiz, alaba eingo doola.*

3.8. Emendiozko perpausak osatzeko 'ere' juntagailua eta 'gainera' lokailua

Emendiozko perpausak osatzeko ERE eta GAINERA juntagailuak agertzen dira.

3.8.1. 'Ere' juntagailua

ERE juntagailua honako ingurunetan agertzen da:

3.8.1.1. 'X ere':

- *Goñii' ko Zalduneen katea-ree.*
- *Gezurre esan den oi ee.*
- *Ollalokaree or diik bee txitakiñ eamanik.*
- *Aak ee ik sartu dittuk goizetik ie illoorreen.*
- *Urrungo euneen ee juun emenzitzaion deabrue, ta esa'ementzion.*

...

3.8.1.2. 'Eta x ere':

- *Ikusi ez ezik artu t' eaman ee bai nigandi...*
- *eta oniiree galdetze emen dio ea gizona al dan.*
- *da etxeen ee luze iitzita ementzeeren.*
- *Eta ark ee ate ondoti ots eitte'ementzion amaari:*

3.8.1.3. 'Baita ere x':

- *Baitta ere aittejaunek.*
- *Baitta be aren gañeen esei ee.*
- *Agerrekook jentillen sobrekameen gure izen nunbaitt ee, ta ala iltzez oiaari josi ementzioeen, da baitta geroxaagoon ollaarraari kukurruku joaaziñ ee.*

3.8.1.4. 'Baita x ere':

- *Baitta iriiree.*
- *Geroogoko'ateen legoiak bigaarren idipuskea eskau ementzion; baitta leena bezela jan ee.*
- *Baitta laixter jan ee Kanillo-txikik.*
- *Baitta juun ee zapataitxikie.*

...

3.8.1.5. 'Eta baitta x ere':

- *Ta baitta eiñ ee gizonak.*
- *Biik maien jarri ementzien baa, ta baitta gosaalduure.*
- *eta baitta barrunen eaztune sartuuree.*
- *Kanillo-txiki, LEGOI esanda , legoi biurtu emantzan, eta baitta burrukan ekiñ ee deabruukiñ.*

...

3.8.1.6. 'X ere bai':

- *Txakuur txikiik ee bai ...*

3.8.1.7. 'X ere ez':

- *baño jigante'ateati ezetz bikatiiree ez diola ajolaik esan dik.*

3.8.1.8. ‘Eta x ere bai’:

– *Jantzie ekai ementzion eta beaandi jakin ee bai inguruko bi emakume ziela oola zeitzenak.*

Ere lokailua edozein juntagailurekin ager daiteke:

– *Baño ark ee, leenak bezela, leioa eziñ itxiik gaue pasau ementzoon.*

– *Urduun ikazki-nausiitako bat juun ementzan autza; baña ueree izutuka urgabe etorri bere tokira.*

3.8.2. ‘Gainera’ lokailua

Adibideak:

– *Deabruuk txupau ta tximelduta utzi ementzion. Gañeara esa’ ementzion: «biar goizeko amarretan etoiko non; ez iñoi esan; bestela jan ingo aut.»*

– *Kastilloprankok motileeri aindutako ondasunek ema ementziotzan. Gañeera esa’ ementzion ze bee alabaatako’at anratzat eskeintzen ziola.*

...

‘Eta gaiñera’ eta ‘eta ... gainera’ dugu ondoko bi adibideetan:

– *«Ezetz» sorgiñek ta gañeara siñuka mingañe etaz asi emenzitzaion.*

– *Bein bateen iru eiztari agertu ementzien mendi artan, ta gaueako ostaku eske etxe txuri artaa juun gañeara.*

3.9. ‘Edo’, ‘ala’ eta ‘nahiz’ juntagailuak eta ‘bestela’ lokailua

Hautakarien artean, ‘EDO’, ‘ALA’ eta ‘NAHIZ’ juntagailuak eta ‘BESTELA’ lokailua agertzen dira.

3.9.1. <Eo>, ‘edo’ juntagailua

Kategoria desberdinak elkartzen agertzen da:

3.9.1.1. Bi izen sintagma elkartzen ditu:

– *Urduun jentillek deadar eiñ ementzoeen Agerre Agerre zan bittaarten etzala etxe artan eriiik eo makiik paltako.*

– *T’arrezkeo erie eo makie beti ize emen da Agerren.*

– *Jartzak bazkaarie eo aparie esa’ ezkeo, mai orrek bazkaarie eo aparie bertan prantatze’ ementzoon.*

3.9.1.2. Menpeko bi perpaus jokatu:

– *Deabru’ atek, ezautuko zoola Patxi-ermentarie zan eo etzan, da atezuloti beida jarri ementzan.*

– *Da alako’ateen mendiñ, urrutiñ, zaunka-otsa zalazkoa eo etzalazkoa aitze’ ementzan.*

3.9.1.3. 'X edo' (anakolutoa), hau da, bigarren partea isilpean, zehaztu gabe, uzten da beste adibide honetan:

– *Ateekiñ eo ots pixka'at ataa zoon besta gau bateen, deabru orrek artu ta itxasoon urrutia bota ementzoon.*

3.9.2. <Ala> juntagailua

Bi erabilera ditu: bata Adierazpen- perpausetan eta bestea galde-perpausetan galdegai diren juntagailuak elkartuz.

3.9.2.1. Adierazpen-perpausetan, bi izen sintagma elkartzen agertzen da gehienetan. Behin, ordea, menpeko bi perpaus elkartzen ditu.

3.9.2.1.1. Bi izen sintagma elkartzen ditu:

– *ta beela izpitu ta apuusto eiñ ementzoeen ea txakur txiki ue ala eiztariin zakurrek ote zien azkarraagook.*

– *Erregiña aur eitteko ementzoon eta erregek aurrez jakin nai semea ala alaba eingo zoon...*

– *Eta beaari galdetu ementzoeen ea saiets-ezurrek austeaa ala buruko muñek jauzteaa zan okarraagoa.*

3.9.2.1.2. Menpeko bi perpaus elkartzen ditu:

– *Esan deiuela launek egiiz ai naizen ala ez.*

3.9.2.2. Galde-perpausetan bi izen sintagma elkartzen nahiz bi perpaus elkartzen agertzen da:

– *izer deizkion: ni ala gatza da bearraagoko gauzea munduun?*

– *«eroiko nok ala ez?»*

3.9.3. <Naiz> juntagailua

Jaso dugun adibide bakarrean, bi izenlagun elkartzen ditu:

– *Gauero etortze emenzitzaion katu zuri aundi' at eta auzoko naiz urrutiitako gertaera guztiik salatze ementziotzan.*

3.9.4. <Bestela> lokailua

Beti perpausaren hasieran agertzen da. Aurreko perpausaren aditzari dago-kion balizko esanahia duten adibideak agertzen dira:

– *ta Jainkoaatio andi aldein zezala; bestela galdue zala.*

– *«... ez iñoi esan; bestela jan eingo aut.»*

- *Baño esa'ementzion Iparraarremendia ardiik ez eamateko, bestela ango deabru'atek ardi guziik galdu eingo littuuzkeela ta.*
- *Baso'at eman neenan: asmatzen baldin bazoeen zeekin eiñe zan, zaku-urre'at aantzako izetekoon, eta bestela aan animaak neetzako izetekoon.*

...

Inoiz aurrean 'eta' kopulatiboa duela agertzen da:

- *emendi urte beteako asmatzen baazuia basoa zeekiñ eiñe dan, zuuntzat izen deilla zaku-urrea, ta bestela neetzako izen dittezela zuun goamenak.*
- *Baso'at eman neenan: asmatzen baldin bazoeen zeekin eiñe zan, zaku-urre'at aantzako izetekoon, eta bestela aan animaak neetzako izetekoon.*

3.10. Aurkaritzako juntagailu eta lokailuak

Aurkaritzakoan artean, <baño> eta <baizik> juntagailuez gainera, <berriz>, <ordea>, <alaaree>, <orraatio> eta <alaxeeree orraatio> lokailuak agertzen dira.

3.10.1. <Baño> juntagailua

Oro har, perpaus hasieran agertzen da. Adibideak:

- *Deabruun esana eiñ ementzoon, da oñetakok ausi, baño kateea osoik geatu.*
- *gizona kristau ona ementzan; baño andrea, oso gaiztoa ta iñolaaree umeeek batizatzea nai etzooa.*
- *baitta be aren gañeen esei ee. Baño esei zaneke deadarka jei ementzan.*
- *Ez geala, baño bagaittun.*

...

<Ba(i)ña> ere agertzen da noiz edo noiz:

- *Irugarrena iritxi ementzan etxera; baiña egun gutxiin bizi ueree.*
- *Ikazkiñ gazte bat juun ementzan Saastarri'ra urtara; baña erabat izututa, urgabe biurtu ementzan bee txabolara.*
- *Juun dan jaien, neska oi elizan mezatan zeola, besteei bezela, ogi beinkatue eman zooneenan; baña puska bat eskuti eroi eta azpiko spultura-arriin ertzeko zuloti beera izkuta oaan.*

...

Gaztelaniazko 'sino'ren ordeaz ere agertzen da 'baño':

- *Gaitz ustez ez baño aren aixkietasuneen billa zeotorrela esa'ementzion jiganteek.*
- *len ez baño oaiñ deutsok, oaiñ deutsok.*
- *Leenengo zaldie ez, baño aizea bezin laixter ibiltzen zana gertau emen-zitzaieen.*

...

<Baño alaaree> ere agertzen da:

- *Zapataitxikie, bee burue libre arkittu zooneen, ez ementzan asarre. Baño alaaree jiganteeri, bekokie zimurtuta, zorrotz eitte ementzion ...*

<Baño alaxeere> 'baina halaxe ere'. Adibideak:

- *Gerokoateen etxea juuteko asi ementzan Jabier. Baño ez ementzioeen utzi nai Urrutsun, gaiztakeri aundiik einda zeola ta bideen (bidean) zerbait gertauko zitzaion bildur zielako. Baño alaxeere Jabier, motil arroa izen, da irten eiñ ementzan.*

<Baino ... orreatio>, kausa kutsua ere badu:

- *Beizee sorgiñek siñuka mingañe eakuste' ementzion. Baño motillek iittaieekin mingañe moztu ta polsilloon gorde. Baño ez ementzion orreatio sorgiñek ogeitzen ta urduun motillek eskupelariook buruti beera sartu ementziotzan.*

3.10.2. <Baizik> juntagailua

Juntagailu hau adibide bakarrean aurkitu dugu:

- *gaizto zuri bat baizik, ez aiz egundaño.*

3.10.3. <Berriz> lokailua

Honako adibide hauetan azaltzen da:

- *Jéntillek Jesukristoori Kixmie deitze ementzioeen, Kismik berriz tximue esan nai emendo.*
- *Orrekiñ, ikazkiñe plazeen erdiñ erre ementzoeen. Eiztarie berriz erregeen al<baakiñ ezkondu ementzan.*
- *Zaldunek (...) esa' ementzion, mesedez buruko zorriik il zeiozkala. Neskeek berriz, aldein zezala andio; bestela Iraunsugeek biik jango zituula laster.*
- *Zapataitxikiik esa' ementzion ze: euzkialdeerdi' ateti beidau ezkeo, semea ingo doola dezkiot; eta besteti beiz, alaba ingo doola.*

...

3.10.4. <Ordea> lokailua

Adibideak:

- *Astook ordea atzeko bi ankaakiñ atea itxi ementzoon.*
- *Ez dauket ordea nik soñekoik ee ooloko lekua juuteko.*
- *Bikarioa atzea Urkuela juun ementzan; bakarrik ordea.*

...

3.10.5. <Alaaree> lokailua

Adibideak:

- *(nausiik) esa' ementzion Iparraamendia ardiik ez eamateko (...). Alaaree Kanillo-txiki, bee ardiikiñ, Iparraarremendia juun ementzan.*
- *Ez ementzeuken ogi' at beste jan-gauzaik. Alaaree ogi oi, oso-osoik, jainkoon-izenekoori ema' ementzion.*

...

3.10.6. <Orraatio> lokailua

Adibideak:

- ... *deabru orrek artu ta itxasoon urrutia bota ementzoon. Irarika-irarika goizaldeako orraatio itxasbatarrea ingurau ementzan.*
- *Iñun artu nai ez ta, ardu galdue bezela ementzeillen, gizaajoa, juun-dajuun. Alako'ateen orraati, bee onez, Elkorri'aldea jo ementzoon.*
- *Nausie uso ue arrapatzeko asmootan ementzeilen beti. Baño etxeoandra sorgiñek ez ementzoon iñolaaree nai. (...)Noaizbait ee orraatio nausi orrek usoa arrapau ementzoon.*

...

3.10.7. <Alaxeere orraatio>

Adibideak:

- *Besta neskame guztiik muturka asi emenzitzaion, ea segurotxoon ee ziñek jan bear zoon zorritzu arek eindako opille. Alaxeeree orraatio etxeoandreek opil bat eitten utzi ementzion.*

3.11. 'Aiñe' (<adiña>), '-ago', '-agoko' eta 'bezain'

Konparazio perpausetan, AIÑE (< adina), -AGO, -AGOKO eta BEZAIN agertzen dira:

3.11.1. <Aiñe> 'adina'

Adibideak:

- *Oñutsik leen aiñe ibilli ezin Zaldun gizaajoa.*
- *ta jaa zak nai dean aiñe piku ni bizigaarri pixka'at artu bittaarten.*
- *ikulluun iru zaldi daare: bata prentsamentue beziñ laixter ibiltzen dana; bigaarrena, aizea aiñe, eta airugaarrena oso motela.*
- *Zaku-urreekiñ bi anaieek apaizetaako ikasteko bear aiñe ize ementzoeen.*

...

3.11.2. <-a(g)o>, '-ago'

Adibideak:

- *Seme-alabaak euzkie baño ederraagook azi ementzien.*
- *Leenak eta gerokook baño lan okarraagoa iruittu emenzitzaion oaingo au motil gizaajoori.*
- *Urrezaleek geiao urrea baño.*
- *ta apuusto eiñ ementzoeen ea txakur txiki ue ala eiztariin zakurrek ote zien azkarraagook.*

...

3.11.3. <-a(g)oko>, ‘-agoko’

Adibideak:

- *Patxi leenda geiaoko gaiztekeriik eitten ementzeillen.*
- *¿zer deizkion: ni ala gatza da bearraagoko gauzea munduun?*
- *Ba ementzoeen euzkie baño ederragoko semetxo’at ee.*
- *Zu bearraagokoa zea gatza baño.*

...

3.11.4. <Beziñ>, ‘bezain’

Adibideak:

- *pentsamentue beziñ laixter ibiltzen zan zaldie*
- *Iraunsugeeri begi biik irten emenzitzaizkion, arille bezin aundiik, eta amilka, malkorrek beera, jun ementzien.*

...

3.12. Kausazkoak

Kausazkoetan ETA (<ta> edo <da>) agertzen da, eta ez BAIT-. Aipatutakoaz gainera, -LAKO menderagailua eta <orreati(o)> lokailua ere agertzen dira.

3.12.1. <(e)ta>

Adibideak:

- *Beeretan kristauek bizi ementzien, da arteen ez ementzoeen gariik eitten, galaziik ez da.*
- *¿Mesedez emango al-diozu ogi pixka’at ume oni goseek iltzen dao-ta?*
- *Ezetz besteek, ark etzoola ortaako balio ta.*
- *Iñun artu nai ez ta, ardu galdue bezela ementzeillen, gizaajoa, juun-da-juun.*

...

3.12.2. ‘-lako’

Adibideak:

- *¿Ez altzea akordatzen nola iltzeko bialdu ninduzun, gatza munduun bearraagoa zala errege ’at baño, esan noolako?*
- *«Jesus» esan zoolako, bere tankera artu eta an geldittu ementzan giltzazuloti atea eziñik, narrugorriñ.*
- *Erritarrak oso ondo artu ementzoeen: ez ondo jokau zalako, baño bai abeats porrokatu etorri zalako.*

...

3.12.3. <Orreati(o)> lokailua

Adibideak:

- *Iraunsuga arek euneko kristau bat bear ementzoon jateko, eta kristau oi kueba atakan billatze' ezpazoon, erriittaa jetxi ta eunda bealdiiko bearrak eiñ oi ementzituun. Orreatio, erriittan suerteek bota, ta erortzen zan kristaue biältze' ementzioeen.*
- *Baño gazteenak leenengo ibaibaztarreen oñetakook eantzi ementzittuun, eta orrekiñ bideen besteek baño atzeago geatu ementzan. Orreati bi larrüñak etxea lenau iitxi ementzien.*
- *Arripilla artan ba emen da idinarru' at bete urre. Orreati esate' emen dioia «Urrezuloko-Armurea».*

...

3.12.4. <Orraatio>

Eta azkenik, <orraatio> agertzen da perpaus amaieran, honi 'kausa' kutsu bat emanez:

- *Ez ementzan eze ikusten, d' alako ots izugarrie aittu zooneen, jigantea beaaree zerbaitt ikaatu eiñ ementzan orraatio.*

3.13. Kontsesiboak

Bizkaieratik saihestuz, kontsesiboetan ez dugu ARREN aurkitu. Ataunen ez da '-a(g)ati(o)' eta 'ba... e(r)e' besterik agertzen.

3.13.1. <Aati(o)>

Aditz jokatugabeaz agertzen da. Adibideak:

- *Au jentillek jakintzoeneen, kristauek ez izen aatio, urrezko sobrekamea Agerrea jetxi ementzoeen.*
- *Baño deabrue, eiñ alaak (sic) eiñ aati, ezin jei ementzan zizallu gañeti.*
- *Geozti aren berriik ez emeoan, etxekook eta ingurumaiko jendeek billa ibilli aatio.*

...

3.13.2. 'Ba e(r)e'

Adibideak:

- *Biar jango banauk ee. Badaat gaurko bizie.*
- *Baietz, bea zala; bea eziñ ikusi zoon sorgiñen batek zatartu eta zaar-itxurea eman bazion ee.*

3.14. Denbora perpausak

Denbora perpausak osatzeko aukera desberdinak agertzen dira. Besteak beste, honako hauek:

3.14.1. <A(r)ik eta arte>

Adibideak:

- *An euki ementzoon Patxik deabrue iru urteen, aik eta suukiñ beatuuz pikea urtu zion arte.*
- *An erregeen alaba oi gau guztiñ dantzan ibilli ementzan, aik eta oñetakook urrau zittuun arte.*

...

Eta berorren aldaera den <alík eta ... arteen>:

- *Baño besteek ezetz, eantzu'ementzion, alík eta aren anieei lapurtutako astoa eta maie eman arteen etzoola geatu aazingo makillaik.*

3.14.2. 'Aditza + arteen'

3.14.2.1. 'Aditz jokatugabea + arteen':

- *Askotan gauz Agerrea jexi oi ementzien t'an jokuun aitze' ementzien eunsentiñ ollaarrak kukurruku jo arteen.*
- *...eta oriik urrau arteen mendiz-mendi zeillela.*

3.14.2.2. 'Aditz jokatua + arteen':

- *Baño ez ementzoon arek izutzen, zakurre beekin zoon arteen.*
- *tori somprallu au, ta, orrekiñ zailtzen arteen, ez da zuutzat gauza izkutukoik izengo, danai igarriko diezu.*

3.14.3. 'Aditz jokatugabea + arteko + izena'

- *Baita autza io-ta ase arteko aiek jan ementzituun.*
- *Garai artan mendiz-mendi ementzeillen Goñii' ko Zaldune burniizko oñetakok eta gerritti beerako katee aundi' at arrastaka eta ibilliñ urrau arteko penitentzie eiñ bear-da .*

3.14.4. <Bittarteen>

Gehienetan, menpeko perpausaren amaieran agertzen da:

- *Jokalarie ikulluun zan bittarteen, anra gazteek txistu pillat eiñ ementzoon bee apusuntuun.*
- *Ardiik larreen zeiltzen bittarteen, bea lora biltzeen ibiltze'ementzan.*
- *Urduun jentillek deadar eiñ ementzoeen Agerre Agerre zan bittaarteen etzala etxe artan eriik eo makiik paltako.*
- *Etza'ai urduun, nik gosaaldu bittaarteen, orroko zizallu ortan, ainbeste bideen nekauta eongo aiz ta.*

...

Inoiz, ordea, menpeko perpausaren hasieran:

- *Adagi puska' at jarri emenzoeen zartagiñ erretzen. Bittarteen iru anaieek ixilik ementzeeren.*

3.14.5. 'Aditza + kasu marka'

3.14.5.1. 'Aditz jokatua + (e)n + -ean':

- *Jentillek ollaarkantue aittu zoeneen, eldu een sobrekameeri ta berealdiiko erruun abiittu ementzien*
- *Alako izarra ikusi zoeneen, jentill orriik erabat ikaatuta, munduun ze gertau bear ote zoon ezin asamauiik ementzeiltzen.*
- *Ta etxea datorreneen emen billatzen bazaittu, jan eingo zaittu.*

...

3.14.5.2. 'Aditz jokatugabea + -ean':

- *Andi aurrera, beti euneen garai jakiñeen, gazure eatea sugakume oi etortz- 'ementzitaion.*

3.14.5.3. 'Aditz jokatugabea + takoan' (heldutako momentuan):

- *Gari oi eldutakoon, ebai ta ioozak.*

3.14.5.4. 'Aditz jokatua + (e)n + -eko':

- *Baño motille oia juuntzaneko, ostalariik eitte ementzioon astoori: «ei' zak urrea.*
- *Sukaldeen sartu zieneko, jarri maien, esa' ementzion Patxik.*
- *Etxeen sartu zaneko usanka asi ementzan, emen gizon arrotzen bat badao, esanes.*
- *Baño esei zaneko deadarka jei ementzan.*

...

3.14.5.5. 'Aditz-izena + -rako':

- *Au jentillek (...) urrezko sobrekamea Agerrea jetxi ementzoeen, da bearekiñ gaixoon oia, Elizakook juuteako, jantzi ementzoeen.*

3.14.5.6. 'Aditz-izena + -rakoan':

- *da etxeti ataatzekoon beste anaieeri ure berotuta amari manue emateko esa- 'ementzioeen.*

Era berean, 'Izena + -rakoan':

- *Eta oiakoon ostalariri esa' ementzion: ez geo nee astoori «ei' zak urrea» esan.*
- *Gaueen, etxeakoon, Umarki-aldeen asto'at agertu emen zitzaion, eta bere aurreti ementzijoon.*

...

3.14.6. <Eta (andi) beela> ‘eta (handik) berehala’

Adibideak:

- *Geo kristiandadea munduun zaaltzen asi zaneen, jentil danak sakabanau ta beela galdu ementzien.*
- *artu au, ta or mendi gañea io, ta andi beela billaukoozu toki zelai garbi’at...*
- *Aen esana egiñ eta beela oñetakook urrau ementzittuun.*

3.14.7. ‘Aditz jokatugabea + <baño leen>’

Adibideak:

- *ta biar nik bigarren botiñe oñetan sartu baño leen nee etxea juun da nik ainduko’itzaan iru gauza eitten baittuk, galdu’ittuaan ondasunek atzea eskuutaatuko’ittuk.*

3.14.8. ‘Aditz jokatugabea + eta’

Ekintzari jarraipen kutsua ematen diola:

- *Leize ortan denboan bateen Iraunsugea bizi izete ementzan, da gosetzen zaneen erriittaa jetxi-ta, eundabealdiiko eriotzaak kristauen arteen eitte’ementzittuun.*
- *Andi beela artzeen do su-ta-gar andreek ta soka danak erre t’an dijoa aideen deadarka*
- *Oriik jantzi-ta zoatz- esa’ementzion Amaberjiñek.*

...

3.14.9. ‘Partizipioa + eta gero’

- *Andra’at aitze ementzan ardatzeen gauero, etxeko beste guztiik oia aldeinda gero.*

3.14.10. ‘Aditz jokatua + ezke(r)o’

- *baño Kanilo ez deitzeko geo ari, abeastu zan ezkeo etzoola izen orrenik nai ta, esan ementzioeen.*

3.14.11. ‘-(E)la’

‘-(e)la’ menderagailuaz osatutako perpausak modu kutsua ere badute:

- *Ubei’ko leize-aldeen zebiltzela, leizeti iru txekorgorri irten-da beengana ementzeotortzen.*
- *Ala zeiltzela, gizon bat agertu ementzan.*
- *Beñ, an barruun ardoa eaten ai ziela, batek besteai esan ementzion...*

3.14.12. ‘Aditz jokatua + orduko’

- *Ikusi zoon urduko, saltatzen zaio aurpegia katue...*

3.15. Modu perpausak

Denbora perpausetan ikusi ditugun ‘-(e)la’ menderagailuaz osatutakoez gainera, honako egitura hauek ere agertzen dira:

3.15.1. ‘Aditz jokatua ‘-n’ + ‘bezela’

Adibideak:

- *Neskeek, zana zan bezela esa’ ementzion gertaera guztie...*
 - *Motillek dana zan bezela gertakizun guzie azaldu ementzion.*
- Adizki laguntzailea isilean gelditu daiteke:
- *Beak esan bezela, mallook beera amillka bota ementzoeen...*
 - *Eta ala sorgiñ ori juun emenda Sasteia, gizonak esan bezela.*
 - *Asi ementzan baa deabru oi nagiik ataatzan bezela.*

...

3.15.2. ‘Bezelako’z osatutakoak

Adibideak:

- *baño Beasin’go olaan billatuko’ituula bear bezelako gizonak, eantzu’ementzion.*
- *ta an izengoozuuia zuuk bear bezelako bizitokie.*

...

3.15.3. ‘Partizipioa + (e)nez’

Adibideak:

- *Iltzaneen, Irumugaata aldeerdiñ amentzeillen deadarka esanez...*
- *Ostatuko motill orrek leenaukootan bezela eun guztie leiondoon mailuukiñ kax-kax-kax einez pasau ementzoon.*
- *Motiko aak ogie janez ikusi zittuuneen, emakume arek esa’ ementzieen.*

...

3.16. Helburuzko perpausak

Helburuzkoetan adizkia subjuntiboan agertzen da edota ‘aditz-izena + ko’ erabiltzen da.

3.16.1. Adizkia subjuntiboan

Adibideak:

- *Juun ibai ertzea ta an zerbaitt makurtu ementzan ume oriik auaakiñ ure iitxi zezeen.*

- *Eta ala, lurreen zaalduta izara aundi' at jarri ementzoeen, eta aren erdiin gue asto ori, antxe urrea eiñ zezan.*
- *Makilla oi geatu zezan erregu ein ementzion.*

...

3.16.2. 'Aditz-izena + -ko'

Adibideak:

- *Inparnuko deabrue zaldun bikain baten piguran agertu emen zizaion, da oñetakook eta kateea urratzeko bee astasuneekiñ iurtzi bear zituula esa' ementzion.*
- *Danak sinistu ementzioeen ta erregeek bee alabaakiñ ezkontzeko artu ementzoon.*

...

3.17. Ondoriozko perpausak

Ondoriozko perpausak hiru egitura ezberdinez agertzen dira:

3.17.1. 'Bada' lokailua

Adibideak:

- *Eta txingurrik ee esa' ementzion: TXINGURRI esaten deaan bakoitzeen txingurri biurtuko aiz; baño ortaako nee bizkarreti puska' at kendu bear dik. Kendu ementzion baa txingurriri puska oi ta...*
- *Kanillo-txiki ikusi zoeneen, iruek oska jarri emenzitzaion: jgizon, gizon! ator unutzta. Juun emenzitzaieen baa, eta zer beartzoeen galdetu ementzieen.*

...

3.17.2. 'Eta hala'

Adibideak:

- *Gizonak esa' ementzion orduun sorgiñ. Jri mantenu emango ziola eta aren etxea juuteko. Eta ala sorgiñ ori juun emenda Sasteia....*
- *Etxea juun zaneen esa' ementzieen bee aittei ta anaieei nolako maie zekarren, ta ala, mai orri, danan aurreen, deadar eitte ementzion: jartzak bazkaarie.*

...

4. HIZTEGIA

4.1. Gipuzkerako eta inguruko hizkeretako hitzak

Gipuzkerako eta inguruko hizkeretako zenbait hitz agertzen dira: *eskubi, urruti, mingañe, tximue, ebi, elbi...*

Beste hitz batzuk, bizkaieraz izan ezik (nahiz hemen ere ezezagunak ez diren), euskalki guztietan erabiliak dira: *ero(r)i, eskale, etsai, sukalde, bezela eta bezelako, zail, ale, galdetu, itz eiñ, itzal, lotsagabe, ese(r)i, gaizto...*

Araban, bizkaieraz eta erronkarieraz ezaguna den <Aitejaune> ere agertzen da. Baita <amandre>, berau ere erronkarieraz ezaguna. Bergaran ere biak agertzen dira eta Altsasun⁹⁴, 'aitejauna'.

Elren arabera ere, 'aitejaune' agertzen da Ataungo hizkeran.

4.2. Mendebaldeko hizkerekiko hurbiltasuna duten hitzak

Mendebaldeko hizkerekiko hurbiltasuna erakusten duten hitzak ere agertzen dira: *abade* (baina, baita, <apez>), *oostu* (baita <lapurtu> ere), *barru, txistu, okala* (baita <aragi> ere), *jardun* (<jardun da jardun da jardun> esapidean), *txikar* (<beatxikar> 'dedo meñique'), *izara...*

Ataungo hizkeran gehienetan 'nai' (<ta iñolaaree umeeek batizatzea nai etzooa.>) agertzen den arren, <logure>, <txixegure> eta <sobrekameen gure izen> ere azaltzen dira.

4.3. Ekialdeko hitzak

Ekialdeko (?) hitzen bat ere agertzen da: *aski*.

4.4. Euskal jatorriko hitzak

Euskal jatorriko hitzak ugari agertzen dira: *amandre, opo* 'talón', *zuztar* 'raíz', *elaatze, lizar, irrixt egiñ, albizitu* 'reanimarse', *lurrin* (<ez ementzion lurriñik eantzun> 'no le contestó palabra'), *itxaasi, ibai, malkor, jauzi* 'salir, partir', *sorbalda, uranbill, illoor, euzki, endaie, odai...*

⁹⁴ Ikus Izagirre, 1967.

4.5. Maileguak

Maileguak oso ugari agertzen dira. Adibideak: *errosariook*, *tripa*, *suerte*, *penitentzie*, *inparnu*, *deabru*, *pigura*, *tragatu*, *aingeru*, *kollara*, *batizatu*, *notizi*, *pensau*, *jentill*, *sobrekama*, *palta*, *koba* (baita <leize> ere), *tximini*, *eskapatu*, *kanposantu*, *apusuntu*, *poltsillo*, *akabarea*, *eskupelariok*, *markau*, *akaatu*, *gaztiña*, *ostatu*, *juntau*, *panparroia*, *apuusto*, *botin*, *txabola*, *saltatu*, *bixigu*, *jigante*, *eskillara*, *somprallu*, *pesta*, *zapata*, *arbola*, *mañu*, *meiku*, *baso*, *karrera*, *konfessore*, *puñal*, *sakristaue*, *kristaue*, *alsolbizio*...

Mailegu gehienak gaztelaniatik hartuak diren arren, badira latinetik zuzenean hartuak ere: *keiza* (lat. *ceresia*), *katee* (lat. *catena*), *denbora* (lat. *tempora*), *mandarikau* (lat. *maledicere*), *ganbara* (lat. *camara*)...

4.6. Izenaren morfologia

Izenaren morfologiari buruz hitz egiterakoan ikusi dugunez, maiz erabiltzen dira izen eta izenondo elkartu eta eratorriak. Besteak beste, hauek jaso ditugu: *besaara-ortz* 'rejas de arado', *astasune*, *kurteskillare*, *jentillbaatza*, *ollarrak*, *ipurtauiki*, *galale*, *galazi*, *arbola-ipurdi* 'base del árbol', *bidekuutze*, *begibakar*, *baxajaun*, *adarmutur*, *presondegi*, *goaittgarri* 'desagradable', *narrupillea*, *oñetako*, *soñeko*, *eunsenti*...

4.7. Asteko egunak

Bi agertzen dira: *ostiela* (baita <ostiral-santu> ere) eta *launbateen*.

EIren arabera, <asteleen>, <astearte>, <asteazken>, <oste(g)un>, <ostiala> edo <ostiela> agertzen dira Goierrin. Asteko azken bi egunak <zapatu> eta <domeka> esaten omen dira Ataunen.

4.8. Hilan izenak

Aztertu ditugun testuetan bi besterik ez ditugu aurkitu: *martzo* eta *apiill*.

EI-ren arabera, berriz, honako izen hauek erabiltzen omen dira Goierrin: <ilbeltza> 'enero'; <apirilla> eta <api(r)ille>; <mayatza> eta <maietza>; <ga(r)agar(r)illa/-e>; <aguztu> eta <agoztu>; <agorra> eta <azaroa>. Horiezaz gainera, Ataunen agertzen omen dira beste hauek ere: <otsaille>; <martsoa>; <uztea>; <abendue> eta <gabonille>.

5. ONDORIOAK

5.1. Erdialdeko eta mendebaldeko hizkeren arteko ‘zubi’ lana

Ataungo euskaran gipuzkerak sortutako zenbait berrikuntza eta erdialdeko beste ezaugarri batzuk aurkitu ditugu, baina, era berean, mendebaleko ezaugarriak ere indarrean agertzen dira. Horrezaz gainera, askotan ezaugarri beraren bi aldaera elkarrekin bizi dira, ‘zubi’ lana egiten duen hizkeraren egoera isladatuz.

5.2. Oinarrizko ezaugarriak

Bonaparte printzeak oinarrizkotzat hartu zituen ezaugarriei dagokienez, Ataunen bizkaieraz eta Araban indar handia duen $A + A > EA$ bilakaera singularreko kasu guztietan ia sistematikoki betetzen da; eta Bizkaian eta Nafarroa Garaian bezala, Ataunen indartsu dago ‘ $A > E/I, U -$ ’ bilakaera.

Beste aldetik, erdialdeko⁹⁵ hizkerekin bat eginez, Ataunen asimilazio bustidurak indar handia du; eta sudurkariaren, albokoaren eta, neurri batean, dardarkari bakunaren ondoren txistukari afrikatuaren aldeko neutralizazioa ia erabatekoa da.

5.3. Gipuzkerak sortutako berrikuntzak

Gipuzkerak sortutako berrikuntza batzuk agertzen dira Ataungo hizkeran: N-N-N sailean -I- erroa; [x] ebakera; *EDUN aditzaren -E- erroa; IZAN aditzaren -E- erroa; JOAN aditzaren NIJOA, DIJOA, ZIJOAZTEN... formak; mendebaldeko sortaldean, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaiko sortaldean ere indar handia duen asimilazio bustidura, $D > R$ eta $F > P$ bilakaerak eta NOR izenordain galdetzailearen ordezkari ZEINen erabilpena.

Hiruzpalau ezaugarri, ordea, ez datoz bat gipuzkerak sortutako berrikuntzeekin. Hain zuzen ere, honako hauek: partitiboan -IK dago (ez -IKAN), hitz amaierako -A ez da galdu, ablatiboan -TI/-TIO eta inoiz -TIK (ez ordea -TIKAN) eta, aztertu ditugun testuen arabera, ALA hautakariak indar handia du oraindik.

⁹⁵ Mendebaldeko sortaldeko, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko zenbait hizkerarekin, hain zuzen.

5.4. Erdialdeko hizkeren beste ezaugarriak

Beste zenbait ezaugarritan ere Ataungo euskara bat dator erdialdeko hizkerekin. Adibidez: I-dun aldaerak daude bakarrik (irin, iri...; beltz...); txistukarien bi sailak ondo bereizten dira; hitz hasieran txetxekari afrikatua agertzen da; D (>R)/L aldaeren artean, L-dunak daude (belarra...); hirugarren graduko erakuslea URE da eta pluralean OOK, ORIIK... bezalako formak agertzen dira; NEU izenordain indartuarekin batera, NE(R)ONEK ere agertzen da; mendebaldeko hizkeretatik aldentuz, sozietiboan -KIN agertzen da Ataunen eta, izenordain zehaztugabeen artean, 'izenordain galdetzailea + BAIT' dago. Mendebaldeko 'selan', 'selako'ren orde, NOLA, NOLAKO agertzen da Ataunen.

Joskerari lotuta, Bizkaian agertzen ez den ARI IZAN ugari erabiltzen da Ataunen; aurkaritza adierazteko BAIZIK agertzen da eta modu perpausetan, BEZELA(KO)'...

Erdialdeko hizkeretako zenbait hitz agertzen dira: *eskubi, urruti, mingaño, tximue...*

5.5. Mendebaldeko hizkeren beste ezaugarriak

Mendebaldeko hizkerekin lotzen duten ezaugarriak: GABE formarekin batera, mendebaldeko hizkeretako BA(G)E dago; GUZTI eta GUZI, biak agertzen dira; N-N-N saileko aditzetan EGIN erroa dago; partizipioak gehienetan -TA (inoiz -(R)IK) morfema jasotzen du; bigarren pertsonako plural marka EE da -IArekin batera; eta hirugarren pertsonako plural markak, berriz, EE, E, IA, EA eta TE (hau behin agertzen da) dira; Arabatik abian datorren komunztadura eza sarritan gertatzen da; partizipioetan -(G)I agertzen da adibide jakin batzuetan.

Joskerari dagokionez, BI zenbatzailea batzuetan izen sintagmaren eskuinetara agertzen da; eta kompletiboetan, -(E)Naren arrastorik bada. Mendebaldeko kutsua duten hitzak ere ez dira falta, gainera: *abade, ostatu, txistu...*

Mendebaldeko hizkeretako beste ezaugarri batzuk ere agertzen dira Ataunen. Esaterako, 'A > E / — RR. Ezaugarri hau Euskal Herri osoan agertzen da, baina hitz jakin batzuetan (barri...) Bizkaian bakarrik betetzen da.

5.6. Erdialdeko eta mendebaldeko ezaugarriak

Erdialdean eta mendebaldean bezala, Ataunen ergatibo pluralak -AK marka eta bizidunen inesiboak -GAN marka jasotzen dute. Aditzaren morfologiari dagokionez, subjuntiboan, ahaleran eta aginteran partizipioa dago eta ez aditz-oina; aditzetan *-A + E > A bilakaera.

Joskeraren sailean, kausa perpausetan ADITZA + ETA agertzen da; modu eta denbora perpausetan -ELA dago.

BIBLIOGRAFIA

- AREJITA, A., *Euskal Joskera*, Leopoldo Zugaza ed. Durango.
- ARIN, Jone, eta ARRUABARRENA, Josune, 1989, *Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak*, (2 liburuki), Kriselu.
- AZKARATE VILLAR, Miren, 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Donostia, Mundaiz.
- AZKUE, Resurrección María de, 1923-25, *Morfología Vasca*, (1969), Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- BARANDIARAN, Jose Migel, 1973, *Obras Completas*, (3 liburuki I, II, III), Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- ECHAIDE ITARTE, Ana María, 1984, *Erizkizundi Irukoitza, iker-3*, Euskaltzaindia, Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III*, (EGLU) Bilbo. 1985, I; 1987, I (Eraskina); 1987, II; 1990, III.
- EUSKALTZAINDIA, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakunak*, Bilbo.
- IZAGIRRE, Cándido, 1967, «Altsasuko euskeraren gai batzuk», *ASJU*, 45-95 or.
- LAKARRA, Joseba Andoni, 1983, «Oharrak zenbait arkaismoz», *ASJU*, XVII, 1983, 41-68 or.
- «Bizkaiera zaharreko Ablatiboa», *ASJU*, XVIII-1, 1984, 161-194 or.
- «Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean», *ASJU*, XX-3, 1986, 639-681 or.
- MITXELENA, Koldo, 1961, *Fonética Histórica Vasca*, 1977, San Sebastian, Diputación de Guipúzcoa.
- 1980, «Las antiguas consonantes vascas», *Misceláneas Homenaje a A. Martinet*, D. Catalán ed., La Laguna, 1957, I, pp. 113-157; eta
- 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo, San Sebastián, pp. 166-190.
- OÑEDERRA, Miren Lourdes, 1990, *Euskal Fonologia: Palatalizazioa, Asimilazioa eta Hots-sinbolismoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitarapen Zerbitzua.
- PÉREZ GAZTELU, Elixabete, 1995, *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitate*, Errenteriako Udala, 2 liburuki.
- VILLASANTE, Luis, 1979, *Sintaxis de la oración compuesta*, Aranzazu, Oñate.
- 1980, *Sintaxis de la oración simple*, Aranzazu, Oñate.
- YRIZAR, Pedro de, 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.

- ZUAZO ZELAIETA, Koldo, 1988, *Euskararen batasuna, Iker-5*, Euskaltzaindia, Argitarapen Zerbitzua.
- 1988, «Bizkaieraren ezaugarriez gehiago», *ASJU*, XXII-2.
 - 1989a, «Arabako euskara», *ASJU*, XXIII-1. 3-48 or.
 - 1989b, «Zubereraren sailkapenerako», *ASJU*, XXIII-2. 609-650 or.
 - 1994, «Burundako hizkera». Euskal Dialektologiako Kongresua. *ASJU*-ren gehigarriak, 28. zenbakia, 297-364 or.



JOXE MIGEL AZURMENDI ALBIZU

1954ko azaroaren 26an Beasainen jaioa.

EHUko Gasteizko Fakultatean Euskal Filologian Lizentziatua.

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLAREN ARGITARAPENAK

GERRIKO Liburu-Saila

1. *Astez Aste. Alfabetatzeko*
Egileak: Testua: G.E.E.
Azala: Joxe Mari Telleria
Editorial PAX Argitaletxea. Lazkao, 1979
2. *Ahaide Nagusiak*
Argazki Hitza. Ikus-entzunekoa
Testugilea: J.A. Leunda
Itzulpen eta osagarriak: G.E.E.
Marraskigilea: J.M. Telleria
Eragilea: G.E.E. - Lazkao
Inprimatzailea: Anaitasuna - Usurbil
Argitaletxea: PAX - Lazkao
3. *Euskal Kanta Xorta*. 1981
4. *Euska Aditza. Alfabetatzeko*
1982 G.E.E.
Egileak: J.M. Aranburu, D. Amundarrain, P.J. Aranburu, M. Bidegain, A. Idiakez,
M.A. Maiz.
Gráficas Lizarra, S.A.
5. *Ixtorioa Moldatu-1. Eskolumeak txori-kabia bila*
G.E.E. 1982
6. *Baserri zaharra*
Baserri-tresnak. G.E.E.
7. *Goiherrin kalea euskaldundu-1*
G.E.E. 1984
8. *Aditz Ariketak I. Indikatiboera. Euskalduntzeko*
G.E.E. 1985. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Beneditarrak -Lazkao
9. *Aditz Ariketak II. Baldintzera, ahalmenera, menpekoak, beste batzu*
G.E.E. 1986. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
10. *Esaldi konposatuak. Koordinatuak, menpekoak, beste batzu*
G.E.E. 1987. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
11. *Deklinabide Ariketak*
G.E.E. 1988. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
12. *Esamoldeak*
G.E.E. 1989. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
13. *Hizkuntz Ordezkapenaren Nondik-Norakoak Goierrin*
G.E.E. 1992. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Beneditarrak - Lazkao